

# Zu hemen zaude. goiena



## AZKENA ANTOLATZEKO GERTU

Zapatuan egingo du Antxintxiketan taldeak azkenengoz Arrasate-Oñati lasterketa / 22


Antxintxiketan taldeko kideak, gertu, zapatuan azkeneko antolatze herri lasterketa.

IMANOL SORIANO

# Aurrerapenik barik Edesa Industrialen

Gaur elkartuko dira zuzendaritza eta langileen ordezkariak gatazkari irtenbidea ematen saiatzeko, baina alde bakoitzak bereari eusten dio / 3

**Ointxe taldeko azken fitxaketa amerikarrak, Justin Sathel-ek, bihar egingo du debuta** / 10



IMANOL SORIANO

**Sagiri elkarteak sortu dute Debagoiengan, neska-mutiko sahararrak udan buelta daitezzen** / 3

**Errege Seminarioko kultura aretoa Gabonetarako zabaldu nahi du Bergarako Udalak** / 16

### SINADURAK



Alberto Alonso Osalaneko zuzendariarekin

Mintzalagunak: aisialdia euskarara emana

**Hemen GARBIKETAK**

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

Intxaurtxueta 16, behea ESKORIATZA  
T. 943 71 48 45  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)  
[hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)





Amaia Txintxurreta Oñatiko Ilunpetan Argazki Taldeko kideekin erreportajea lantzen Hemen Debagoiena saiarako.



Imanol Beloki Hemen Debagoiena saiarako erreportajea lantzen, Maite Zubia zinegotzi eskoriatzarrarekin..



Imanol Gallego, Hemen Debagoiena saiarako erreportajea lantzen, Anton Azpiazurekin.



Larraitz Zeberio, Arrasateko Olgetan ballabide zerbitzuko Itsaso Pagoagarekin, albistea lantzen.



Maidor Arregi eta Mikel Ezkerro, Arrasate Rugby Taldekoekin, Harmailatik saiarako erreportajea lantzen.



Miren Arregi eta Aitor Agiriano, Jaiak saiarako lanean, eskualdeko beste kazetari batzuekin.



Hemen Debagoiena-ko aurkezle Txomin Madina, saiara gonbidatutako Jon Berasategirekin.



Harira saiako aurkezle Eneko Azkarate, Arrasate Zientzia Elkarteke Jabier Bengoarekin.



Xabier Urzelai #HRMT saiara grabatzen Araotzen, Mirian eta Joxean aita-alaba eskalatzaileekin.

# Zu hemen zaude.

## GOIENA TELEBISTA UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA

**goiena**<sup>''</sup>  
ZU HEMEN ZAUDE



# Saharar neska-mutikoak udan buelta daitezzen

Sagiri elkarteak sortu dute Debagoiengan, eta datorren udara begira proiektu garrantzitsu bat daukate esku artean: hamar bat haur saharar Euskal Herrira ekartzeko aukera emango lukeen egonaldi bat antolatu nahi dute aterpetxe batean

**Maite Txintxurreta** DEBAGOIENA

Aurreko urteetan ume sahararrek begirale aritutakoek, harrera familiek eta bertan bizi diren herritar sahararrek osatzen dute Debagoiengan sortu berri den Sagiri elkarteak.

"Ikusita gurean *Oporrak* *ba-kean* programak behar akada izan duela, 2018ko udan hamar ume aterpetxe batera ekartzeko asmoz sortu genuen elkarteak", azaldu du sortzaileetako batek, Marta Sanchezek. Harrera familiak gero eta gutxiago direnez, horren partez "familia handi bat" osatu gurako lukete, osterantzean ume asko eta asko ezin direlako errefuxiatuen kanpalekueetatik atera. Begirale debagoiendarrak eta sahararrak egongo lirake egonaldi horretan umeekin batera, hizkuntza-ekin-eta laguntzeko. Uztailean eta abuztuan egingo litzateke egonaldi hori.

Haur sahararrak hona etortzeak dituen onurak azaldu ditu Sanchezek. "Uda gogorra da han, bero handia izaten baita. Gainera, osasun azterketak egitera etortzen dira. Elikadura aldetik ere, barazkiak, arraina, eta abar jateko aukera izango lukete, han ez baita horren erraza. Eta, horrez gain, beste erreallitate bat ezagutu dezaten. Adi-



laz Euskal Herrira etorritako hiru haur saharar: Laha, Slama eta Idumu. SAGIRI

bidez, han, liburuetan bakarrik ikusten dituzten mendi eta errekek ikus ditzakete".

"Garrantzitsuena", baina, Sanchezek azpimarratu duenez, Saharako kanpalekueetako egoera ezagutzera ematea da. "Umeek oso ondo azaltzen dituzte gauzak, eta bertako umeentzat ere askoz ulergarriagoa izaten da", dio.

Helburua lortzeko, urtean zehar ekimenak antolatuko dituzte. Laboral Kutxan kontu zerbaki bat ere ireki dute, nahi dutenek diru ekarpenak egin ahal izateko: ES6030350040110400022569.

Eurekin kontaktuan jartzeko bidea honakoa da: [sagiri.debagoiena@gmail.com](mailto:sagiri.debagoiena@gmail.com).

## Bihar Arrasaten

Sagirikoak kalera aterako dira bihar, urriak 12. Bigarren eskuko azoka izango da Arrasateko Seber Altube plazan –euria bada, Biterin–, eta postutxoa jarriko dute bertan, 10:30etik aurrera. Bigarren eskuko arropa, liburuak, jostailuak eta beste izango dituzte saltzeko. Zozketak eta eskuz egindako bitxiak ere izango dituzte.

## AHTren Bergarako lotunea, datozen asteetan lizitaziora

Arrasate-Elorrio-Bergara zatiaren desblokeoa iragarri du Iñigo de la Sernak, Espainiako Sustapen ministroak

**M.T. DEBAGOIENA**

Bergarako lotunearen lehenengo zatiaren desblokeoa iragarri du Espainiako Sustapen ministroak –Arrasate-Elorrio-Bergara–Euskal Herrira egindako bisitan. Datozen asteetan erabakia BOEn argitaratuko da.

Atzerapen handiak izan ditu Abiadura Handiko Trenak Bergarako lotunean. 2016ko abenduan, Iñigo de la Sernak blokeo horri irtenbidea emateko konpromisoa hartu zuen. Orain, ministroak jakinarazi duenez, urrats "erabakigarria" egin da eta Bergarako lotuneko lehen zatiak aurrera egingo du, Adifeko administrazio kontseiluak onetsi ostean. "Datozen asteetan" ministro kontseiluak lizitazioa onartuko du.

Lehen zatiak 192,3 milioi euroko aurrekontua izango du. Ministroak aurreratu duenez,

lizitazioaren ohiko datak betez gero, 2018ko udan hasiko lirake lanak. Amaiera-datari dagokionez, 2023rako bukatzea da asmoa.

## Arrasate-Elorrio-Bergara

5,1 kilometro izango ditu Bergarako lotuneko lehenengo zati horrek: norabide bakarrek bi adar izango ditu –Arrasate-Bergara mendebaldea eta Arrasate-Bergara ekialdea– eta bi norabide izango dituen beste adar bat –Elorrio eta Bergara artean–. Zati horretan, gainera, hiru tunel eraikiko dituzte: Udaltx mendebaldekoa (2.313 metro), Udaltx ekialdekoa (2.319 metro) eta Kortazarkoa (1.682 metro), hain zuzen ere. Horretaz gain, tunel artifizial bat izango da Angiozarren (200 metro) eta zubibide bat Arantostein, Bergaran (20 metro).

## Irtenbiderik ez, eta epe-mugak agortuz Edesa Industrialen

Edesa Industrialen etorkizunaren gainean CNA Taldeko buruek eta Garagartza, Eskoriatza eta Basauriko langileek darabilten gatazkak ez du aurrerabiderik. Langileen eta zuzendaritzaren artean atzo egitekoa zen batzorra bertan behera geratu zen, Raimundo Jimenez zuzendari nagusiaren "arazo pertsonalengatik". Gaur arratsaldera atze-

ratu dute. Enpresa aurre-konkurtsuan dago urriaren 30era arte. Ordurako irtenbide bat eta inbertsio plan bat aurkeztu beharko du zuzendaritzak. Bestela, konkurtsu legera joko luke. Enpresaren asmoa da oraingo barikuan, urriaren 13an, indarrean jartzea 145 langileri eragingo liekeen enplegu-erregulazio espedientea eta 160 langileekin jarraitzea, langileen ia erdiarekin, Garagartza itxita. Langileek ezezkotan segitzen dute, inbertsio plan baten zain.

## MINTZALAGUNAK: SARE BAT INGURUAN, BIDELAGUNAK ALBOAN.

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJE BEREZIA  
URRIAREN 11N, EGUAZTENEAN, 21:30EAN

**goiena**  
ZU HEMEN ZAUDE





Etorkizuna eraikiz egitasmoaren baitan joan den egubakoitzean egindako jardunaldian. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# Ikus-entzunezkoen laborategia badator

Euskarazko Ikus-entzunezkoen Laborategia datorren urtean jarriko da martxan Tabakaleran. Aldundiak joan den urtean ekin zion proiektuari eta orain, proiektuaren lehen oinarriak aurkeztu dituzte. Goienak eta MUK egin dute ikerlana

**Miren Arregi** ARRASATE  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskarazko Ikus-entzunezkoen Laborategia proiektua diseinua- ren azken fasean dago. Azken fase hori bideratzeko, nazioar- teko eragileak eta haien ereduak ezagutzen jarraitzeko jardunaldi zikloa antolatu du Diputazioak eta joan den egubakoitzean egin

zen lehen saioa, Orona Ideo gu- nean, *Euskarazko ikus-entzunez- koen etorkizuna* lelopean.

Ikus-entzunezkoen sektoreko 50 eragile eta ordezkari elkartu ziren bertan, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren testuinguruan Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako proiektu espe- rimentaletako baten oinarriak

ezagutu eta horien inguruan gogoeta egiteko. Zehazki, eus- karazko ikus-entzunezko edukien sorrera bultzatuko duen faktori- ariaren inguruan berba egiteko elkartu ziren. "Ikus-entzunezko produktuen kontsumoa gero eta handiagoa da eta testuinguru horretan euskararen presentzia sendotzea ezinbesteko bilakatzen

da", adierazi zuen Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendari Mikel Irizarrek jardunaldiaren hasieran.

## Lehen oinarriak aurkeztu

Aldundiak iaz ekin zion aipatu- tako proiektu experimental hori jorratzeari, eta, horretarako, lan-talde bat ipini zuen martxan. Sektoreko eragileen ekarpenak jaso, euskarazko ikus-entzunez- koen alorrean egon daitezkeen gabeziak identifikatu eta mun- duan zehar abian diren tenden- tziak ezagutzea zen helburua. Behin lan hori eginda, proiektu- ariaren lehen oinarriak aurkeztu zituzten Orona Ideon eguba- koitzean, parte-hartzaileei eza- gutzera eman eta kontrastatzen jarraitzeko.

## Goiena eta MU

Orain arte egindako lanaren ondorioak eta, beraz, Euskaraz- ko Ikus-entzunezko Laborate- giaren zutabe nagusiak Goienako zuzendari nagusi Iban Aran- tzabalek eta Mondragon Uniber- tsitateko Amaia Pavonek aur- keztu zituzten. Hain zuzen ere, bi erakundeen artean egin baita orain arteko lana.

Egubakoitzeko aurkezpenean azaldu zuten, Euskarazko Ikus- entzunezkoen Laborategia da- torren urtean jarriko da martxan Tabakaleran eta hainbat egin- kizun hartuko ditu bere gain. Batetik, behatoki gisa funtzio- natuko du, industriarako auke-

ra berriak hautemanez, nazioar- teko tendentzietan oinarrituz ekimen berriak proposatuz, eta aukera guztietatik potentzialki arrakastatsu eta berritzaileenak izan daitezkeenak identifikatuz. Bestetik, inkubagailu papera ere jokatu du, sorkuntzarako espazio eta dinamikak sortuz eta sorkuntza eredu berriak landuz. Amaitzeko, prototipoak garatu eta produkzio fasera pasa aurreko testatzea lantzeko ere- mu bat ere izango du.

## Zabalkundeari garrantzia

Laborategia Tabakalerako eko- sistematan integratuko da eta, gainera, bere egitasmoaren za- balkundeari garrantzi handia emango dio. Sektorearen parte- hartze zuzena bultzatuko du eta eragile ezberdinen arteko inte- rakzio eta elkarlana bultzatzea izango du helburu.

Berrikuntza-gune berriaren diseinuaren azken fasea bidera- tzeko antolatutako jardunaldien baitako bigarren saioa urriaren 31n egingo da eta azaroaren 16an, berriz, hirugarrena. Horietan, solasaldiak eta *world-cafe* for- matuko dinamikak egingo dira.

## EUSKARAZKO LABORATEGIA TABAKALERAKO EKOSISTEMAN INTEGRATUKO DA

## "Hamaika egunez, erronka botako digute euskaltzaleoi"

**JASONE MENDIZABAL**  
TOPAGUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA

**M.A** ARRASATE  
Euskaingintzako 120 eragile in- guru elkartu ziren zapatuan EHUren Donostiako Barriola gunean. Helburua, Euskaraz 365 Egun dinamikaren barruan datorren urtean egingo den *11 egun euskaraz* ekimenari buruz- ko lan mintegian parte hartzea. Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalek egin du berba ekimenaren gainean. **Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako mintegia izan zen.** Bai, eta emankorra izan zen, batetik parte-hartzeari dagokio-

nez, 120 eragile hartu baitzuten parte. Erdiak ziren euskaingintza instituzionaleko ordezkariak eta gainontzekoak euskaingintza so- zialetik etorritakoak. Helburua elkarlana izanik, pozik gaude. **Zer da 11 egun euskaraz?** Erronka bat da. Denbora jakin baten, 11 egunez, 2018ko azaroa- ren 23tik abenduaren 3ra bitar- tean, erronka botako digute euskaltzaleoi. Alde batetik, eus- karaz egiteko garenok, ulertze- ko gai diren guztiekin euskara hutsean aritu gaitezen, eta eurak, nahiz eta gaztelerara egin, guk



Jasone Mendizabal. T.M

eusteko hautua egin dezagun 11 egun horietan. Hori da *ahobizi-* en profila, euskaraz hitz egiteko gai denarena. Bigarren profila izango litzateke *pelarriprest*-ena. Ulertzeko gai bai, baina hitz egiteko gertu ez daudenak lira-

teke, eurei ere gonbita egiten baitzaie. Hor harreman sare zabal bat sortuko litzateke. Propo- samena da Euskal Herri oso- ra eta aldi berean zabaltzea. hori ari gara sustatzen Topagunearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean. **Dagoeneko herri batzuetan martxan jarri da eta eman dituen emaitzak onak dira.**

Egia auzoan, Arrigorriagan, Agurainen... Lasarten ikerketa lerro batekin hornitu da eta neurtu da ekimenean parte har- tu ondoren, zenbatetan eutsi ahal izan dioten euskaraz arit- zeko erronkari. %80tik gorako arrakasta izan du eta handik hiru hilabetera galdetu zaie ea mantendu den euskaraz aritze- ko joera hori. %60tik gorako kasuetan emaitza baiezkoa izan da. Bide emankorra da, inondik inora.

## Pausokaren aldeko itzulia, Bergarara eta Antzuolara iritsiko da

Zapatuan hasi zen Gipuzkoa zeharkatuko duen Pausokaren aldeko itzulia. Zortzi etapa izan- go ditu; bosgarrenak Eibar eta Elgoibar zeharkatu ostean Ber- garara joko du eta handik Antzuolara. 12:30 aldera iritsiko dira Antzuolara, eguaztenean. Hurrengo etapa ere Antzuolan hasiko da. Lasterketa Urnietan amaituko da urriaren 14an; Pau- soka egunean. Bertan egun oso- ko jaita ospatuko da.

Pausoka elkarteak diru etekinik gabeko elkarteak da, behar bere- zikiak dituzten umeen gurasoek sortua. Kepa Gordo korrikala- riaren laguntzarekin, Pausoka- ren aldeko itzuliak aste batean Gipuzkoa zeharkatuko du.



## #Lekaixoka' borobildu guran

IÑAKI IDIGORAS

OÑATI

Gustoko dot Zea Mays-en *Negua joan da ta*. Errosarixo Bixamonaren ostian, oñatiarrok neguruntz goiaz baiña, udazken betian.

Eta KMK17 #lekaixoka-ren ostian. Ehundaka bolondresek auzolanian egin doguna haundixa izan da. Zorion nahiko jaso dittugu; kritikak be bai, zorionez.

Txantxiku Ikastolatik eta Ikastolen Elkartetik be onartuko dittugulakuan nago. Ondo hartu. Murgildduta gauzen autokritika prozesura lekaixoka aritziak eragindako kritikok batu. Kritiko izan barik nekez eraberrituko baikara.

Udazkena eta negua probestuz, kanpoko lekaixuak utzi eta sukalde bueltan hausnartuz, datorren udaberrixan loraketako energiak bideratu gura nittuzke.

Herri eraikuntza da ikastolen helburua, eta beste hezkuntza eragilliena be bai, nere ustez: publikuarena eta kristauarena, Oñatiri dagokionez.

Badittugu gure artian desberdintasunak; eta sanua deritzot. Hiru eskolotan diharduten estimuzko lagunak dittut; hiruretan gustora. Nabardura batzuk badittugu, *Herri* kontzeptuan, agian. Batzuek euskal naziotasunian fokua –zazpitan, bostetan ala

hirutan banatua?–, beste batzuek eskubide berdintasunian, eta beste batzuek humanismuan.

Hiru ikuspuntuok bata bestiak dute balixorik haundixena, eta, erruetaraiño juango bagiña, bat bera d(ir) elakoan be banago.

Herri eraikuntzagatik ulerketan dot heziz (g)izarte kritiko, burujabe bat haztia. Hesiz hasi baiño –honetan be badihardugu, zoritzarrez–, maitta dezagun Herria, artez artatuz, heziz haziz.

Batek eragindakua haundixa izan bada, hirurok batera egingo doguna borobilla izango da.

Orok bildduta egindakua baitta borobilla.

Desio dot hazi honek uda gutxiren bueltan fruitu borobil hori herriratza.

Metamorfosis zapaburutik txantxikututakuok ur gainian elkar heziz egingo xonau, ala?

## Aurrekontuan superabita izan arren, EAJ eta PSOE zerbitzu publikoak murrizten ari dira

JUAN LUIS MERINO, IGOR URIZAR ETA ENEKO BARBERENA

IRABAZI, BALEIKE ETA EH BILDU ALDERDIEN IZENEAN ARRASATE

Arrasateko oposizioa osatzen dugun Irabazi, Baleike eta EH Bildu alderdiok salatu nahi dugu EAJ eta PSOE zerbitzu publikoak murrizten ari direla Udal Bibliotekan. Adierazgarria da gehiengo sindikala

osatzen duten ELA eta LAB sindikatuek ere gure iritzi bera azaldu zutela Udalean eginiko azken Pertsonal Batzordean.

Bibliotekan diren ordenagailuetan egon den aholku zerbitzua kendu du Udal Gobernuak, bibliotekako langileen esku utziz ardura bat gehiago, lanorduen gehikuntzarik gabe. Aholku zerbitzu hau informatikariak eman zuen eta 2016ko irailetik 2017ko abuztura 27.245 erabilera-saio izan zituen, 3.368 erabiltzaileen eskutik, eta epe horretan bakarrik 520 erabiltzaile berrik baliatu zuten zerbitzua. Egunean zehar erabilera baxuena azken orduan duen arren –394 erabilera-saio–, 18ak eta 19ak bitartean, esaterako, 4.163 saio egin zituzten erabiltzaileek ia urte batean.

Oposizioko alderdiok uste dugu ez dagokiela liburutegiko langileei lanpostu hau gauzatzea, eta informatika aholkulari lanpostuari eutsi beharko litzaiokeela ondorengo arrazoiengatik:

1.-Erabiltzaileen profila. Kasu askotan, baliabide urriko pertsonak dira, informatika erremintetara sarrera edukitzeko beste posibilitaterik ez dutenak, zerbitzuak integrazio funtzio bat ere osatuz. Horretaz gain, erabiltzaile askok informatikako nozio oinarrizkoak behar dituzte euren beharrak egiteko: dokumentuak inprimatu,

eskanerra erabili, bizitza laborala osatu...

2.-KZgunea ez da alternatiba. KZguneak ikastaroak eskaintzen ditu bere jardun ia osoan eta nekeza da erabiltzaileei aholkua emateko tartea bilatzea. Gainera, behar asko puntualak dira, momentuan ebatzi beharrekoak, eta KZgunearen ikastaro profilak ez ditu behar hauek asetzen.

3.- Bibliotekako funtzionamenduaren kalitatean eragina izango du. Oposizioko alderdiok uste dugu bibliotekan ematen den zerbitzua oso ona dela eta ez gaude prest zerbitzuaren kalitatean jaitsiera onartzeko, pisuzko arrazoirik gabe. Kasu honetan, Gobernuak egin dituen azalpenak nahikoak ez direla uste dugu kalitate txartze hau justifikatzeko.

Eztabaida Pertsonal eta Kultura batzordeetan ematen saiatu gara. Kultura batzordeburuak muzin egin dio eztabaida honi, nahiz eta Kultura Sailaren menekoa den biblioteka zerbitzuari bete-betean eragin. Pertsonal batzordean, aldiz, ez zen eztabaida amaitu eta ez da amaituko, Gobernuak ebatzi baitu zerbitzu publikoen murrizketa alkatetzaren erabaki bidez.

Irabazi, Baleike eta EH Bildu alderdiok uste dugu hau ez dela Udalak behar duen norabidea, behar sozialak asetzeko ezinbestekoa delako zerbitzu publikoen kalitateari eutsiz.

## Gune zuriak

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Beste herrialde batzuetan, osasuna bermatzeko, toki batzuk kutsadura elektromagnetiko barik egoteko erabakia hartu dute; adibidez, ikastetxeak, ospitaleak, liburutegiak, zaharren egoitzak... izan ere, toki horiek gune zuriak dira.

Hemen lasai gabilta, nahiz eta ondorengo gomendioak egon:

1. International Agency for Research on Cancer delakoak kutsadura elektromagnetikoa –mugikorrek, wifia, eta abar– gizakiontzako ustezko minbizi-sortzaile gisa sailkatu du –2-B taldea–.

2. 2011ko maiatzaren 27an, Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarraren ebazpena aipatzen zuten. Ebazpen hartan, haurren babes handiagoa lortze aldera, kable bidezko Interneteko konexioei lehentasuna ematera zuzendutako gomendioa gaineratu zen.


3. Arartekoak, 2013ko apirilaren 4ko ebazpenean, kablea erabiltzeko gomendioa egin zuen.

Zuk zure etxea gune zuria izateko pausoak eman ditzakezu; behintzat, gauez wifia eta mugikorra itzali eta logelan dituzun tresna elektriko guztiak deskonektatuz.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA







ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA

## Ahalegina edo emaitza?

Zertaz idatzi pentsatzen hastean, agian Kataluniari buruz egin beharko nukeela bururatu zait, baina, dagoeneko, zer gehitu nezakeen, jada esanda gelditu ez dena?

Egunotan, Katalunian gertatutakoaren inguruan astakeria ugari ikusi eta entzuteko parada izan dugu, beste hainbat gertakari positiboren artean; beraz, komunikabide guztiak inbaditu dituen jazoera horren uholdetik apur bat ihesi, mintzagai horri ez heltzea erabaki dut.

Mahatma Gandhiren esaldi batekin ekin diot asteari, lagun batek e-mailez bidalitako eguneko lehen altxorrarekin: "Gure saria ahaleginean dago, eta ez lortutako emaitzan. Ahalegin osoa erabateko saria da".

Asko gustatu zait eta guztiz bat nator Gandhiren hitzekin.

Gure gizartean, gizarte lehiakor eta emaitzetan oinarritutako honetan, milaka adibide ditugu, guztiaren ginetik azken

### LEHIAKORTASUNAK MENPERATUTAKO EGOERETAN MURGILTZEN DITUGU HAURRAK

emaitzaren balioa nabarmentzen dutenak, hala nola enpresetan, ikasketetan, kirolean...

Askotan, ohartu gabe, gainera, haurrak txiki-txikitatik lehiakortasunak menperatutako egoeretan murgiltzen ditugu, besteak

baino hobeak izan behar dutela sentiaraziz, horrek -eta ez beste balio batzuk- duen garrantzia nabarmenduz.


Baina, luzera, zerk sortzen digu asebetetze maila handiagoo, lortutako emaitza horiek edota bide luze horretan helburuak lortzeko egindako ahaleginak berak? Zer da benetan betetzen gaituena eta erraietan itsatsita gelditzen zaiguna, esfortzu horren esentzia edota lortutako emaitzaren itzala? 8.000ko gailurretako mendizaleei ere entzun izan diegu maiz garrantzitsuena ez dela gailurra egitea, bertarainoko bidea baizik...

Eman diezaiogun, beraz, bideari bere garrantzia, emaitza ondorio bat besterik ez da eta.

Eta nola ez, Kataluniara bueltatuz eta emaitzak emaitza, Gandhiren antzera, jarrera aktibo baina baketsuaren hautua egin duten kataluniar gehienentzat, azken egun eta asteotan egindako bidea eta ahalegina izango dira bihotzetan betiko itsatsita geldituko zaiena.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Haurrak desilusionatu?

JOKIN LABAIEIN

[HTTPS://LABUR.EUS/SOBC3](https://labur.eus/sobc3)

"Nire umeen bila ikastolara joaten nintzenez, 'egin Txopinkoren ahotsa!' esaten zidaten ikaskide guztiak. Egin beharra zegoen. Umeak desilusionatu? Halakorik ezin da egin. Hor ikusi nuen marrazkiok zer-nolako eragina zuten umeengan". Ahotsa ezagutuko nion lehendik, baina igandean jarri nion aurpegia Nekane Sarobe bikoizleari.

"Shin-Chanek bere amarengatik esaten du: etxekoa dugu eta, zer egingo dugu bada, hartu egin behar. Edo gure ama asto zaharraren

bibotea baino zaharragoa da. Japonian ez dute halakorik esango, noski. Lazkao Txiki bat atera nahi izan genuen une batzuetan". Ari denak egiten dituela esaten zuen beti gure aitona zenak. Onerako eta txarrerako. [...]

Berria-k igandean zekarren elkarrizketa irakurtzen ari nintzela ziztada gehiegi sentitu nituen. Jo nuen ETBren haurrentzako programaziora. Frogatu nuen eskaintzaren zati handi bat ni jaio baino lehenagokoa dela. Beste zati bat nire garaikoa. Pentsatu nuen egunero bisitatzen ditudan ehunka haur horiek ahozko komunikazio bizi eta eraginkorrerako dauzkaten zailtasunetan. [...]

Ez naiz putzu sakon eta ilunegian sartuko. Ez dut esango lehen dena ona zenik, ezta gaur dena txarra denik ere. Dena den, zer pentsatua ematen du hainbat gauza irakurtzeak: egun, ezinezkoa dela bikoizle izatetik bizitzea; erabaki bat izan dela euskarazko bikoizketa ia kolpetik murriztea [...] Gaztetxoan larruan jartzeko gai denari, haurraren bila doala, lan orduetatik kanpo, pentsaezina zaio umeak desilusionatzea. Ezagutzak, enpatia mailak eta lanerako gaitasunak ez diote balio, ordea. Erabaki batzuk oharkabean igarotzen dira, eragina nabarmena izan arren.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

**Publizitatea**  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Marta Leturia.

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredaktore burua**  
Ubane Madera.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**



## PROTAGONISTA

# "Gure esentzia mantenduz, ikuskizun berritzailea da"

EDU MURUAMENDIARAZ AUKERAN DANTZA KONPAINIAKO ZUZENDARIA

**Mireia Bikuña** BERGARA

Hogeit urte bete ditu Aukeran dantza konpainiak. *Sutargi* ikuskizuna estreinatu zutenetik bide luzea egin dute. Orain, bide horren errepasoa egiten duen "ikuskizun berritzailea" dute esku artean. Azaroaren 5ean estreinatuko dute, Victoria Eugenia antzokian.

**Urteurren borobila ospatzeko, ikuskizun berria dakarzu?**

Berria eta berritzailea, berezia izango da. Gure ibilbidean erabili ditugun koreografiatako batzuk erabiliko ditugu. Horiek berritu egin ditugu. Dantzen bidez istorio bat kontatuko dugu eta musika zuzenean izango dugu oholztan. Jantziatiko diseinua ere berria izango da. Hainbat aldaketa, beraz. Aukeraren esentzia mantenduz, ikuskizun berritzailea egingo dugu.

**Musika zuzenean, orduan?**

Xabi Solano, Xabier Zeberio, Mixel Ducau eta Iñigo Egia



Edu Muruamendiaraz, Bergarako kaleetan. IMANOL SORIANO

egongo dira oholta gainean gurekin. Duela hogeit urte hasi ginenean, zuzeneko musika erabiltzen genuen. Gero, grabazioekin hasi ginen. Berritro itzuliko gara gure sustraletara.

**Formatu handiko ikuskizuna izango da.**

Bai, hala da. Hasiera batean, hiriburuetako antzoki handietan ibiliko gara. Baina, areto txikiagoetara joateko, moldatu egingo dugu

ikuskizuna. Antzoki txikietan ez dugu zuzeneko musikarik izango. Bestelakoan, berbera izango da.

**Hogeit urte atzera begiratu gero, zer ikusten duzu??**

Lan egiteko gogo handia eta ilusioa. Egun ere mantentzen ditugu, baina egoera asko aldatu da. Euskal dantza tradizionalak bere lekua topatu duela esango nuke. Aukerarekin hasi ginenean, dantza konpainia bakarra ginen. Orain, badaude beste batzuk. Guztion artean lortu dugu egun dugun posizioa. *Sutargi*-rekin hasi ginenetik eboluzio handia izan du modalitate honek. Hain justu ere, bilakaera hori erakutsiko dugu ikuskizun berrian.

**Euskal dantza tradizionala oinarri duen ikuskizunak badu etorkizunik Euskal Herritik kanpo?**

Dantzariak ez gara ezagunak hemendik kanpo. Ez gara futbolariak, pilotariak edo aktoreak. Zaila da, baina ondo hartzen gaituzte.

**Baduzue beste hogeit urtetarako sokarik?**

Puntu honetara helduta, nire hurrengo erronka dantza konpainiaren profesionalizazioa lortzea da. Dantza ogibide bihurtu eta honetatik bizi ahal izateko. Ea lortzen dugun.

## HAU BE BADOGU!

**Arreta berezia Kataluniari**



Hirugarren astez jarraian Katalunia da sare sozialetako gairik txiokatuena. Pasa den astean, gainera, hainbat traol mundu mailan erabilienak izan ziren. Debagoieneko txiolarien artean ere, Kataluniarekiko elkartasun mezuak nagusitu dira, #KatU1 #Catalunya, #VagaGeneral30 #CatalanReferendum eta #Kataluniarekinbat traolak erabilia.

**Emakumeak nagusi Bertsolari Txapelketan**



Aurrera doa Bertsolari Txapelketa Nagusia -#BTN17 traolarekin- emakumeen presentzia nabarmenarekin: @mikel\_axeri: "Orain arte 30 bertsolarik parte hartu dute. 11 emakumezko. 5 kanporaketa eta 4 emakumezko garaile. Ez da kasualitatea...".

@mailegetx: "Emakumeak erakustaldi ederra egiten ari dira #BTN17 txapelketan. Poztekoa benetan!".

**Hatortxu Rock indartsu berriro**

Astehenean aurkeztu zuten jaialdiko 21. edizioko kartela eta ondorioz, #HTX21 traola trending topic izan da. Atarrabian izango da jaialdia, abenduaren 15ean, eta dagoeneko Soziedad Alkoholika, Willis Drummond, Glaukoma, Gatillazo, Huntza, Rude Pride, Los Zopilotes Txirriaos, Anita Parker, Desakato eta Skakeitan taldeak baieztatu dituzte.

## ITURRI ONETIK

**Kilometroak berria**

Arrakastaz ospatu berri da Kilometroak Oñatin; Lesakan dute hitzordua euskaltzaleek domekan, Nafarroa Oinez-en. 1977an Beasainen hasitako Kilometroak jaiak bilakaera nabarmena izan du. Eta aldaketak izango ditu 2020. urtetik aurrera. 2018an Zumarraga-Urretxun ospatuko da eta bi urte barru, Zarautzen. Ondoren beste era bateko jai antolatzeke hausnarketan dihardute azkenaldian Kilometroak jaiaren antolatzaileek. Zelakoa izango den zehatz-mehatz aurreratzerik ez dago, baina aldaketak etorriko direla bai.

## GORA ETA BEHERA



**Apurketak ibaiaren alboko pasealekuan**

Aretxabaletako sanmigel jaietako giro ona hainbat apurketak ilundu zuten. Deba ibaiaren alboko pasealekuan hiru farol apurtu zituzten eta eserleku bat ibaira bota. Suhiltzaileek joan behar izan zuten zapatu gauean segurtasuna bermatzeko. Hainbat herritarrek eta udal ordezkariak atsekabea eta haserrea agertu dute: "Herri honetan ez daukate tokirik hori egin dutenek".







Urriko osoko bilkura. XABI GOROSTIDI

## Liberazioak harrotutako hautsak leuntzen

Urriko osoko bilkuran, Eneko Barberenaren liberazioa onartuta geratu zen. Botatu aurretik, EAJk desadostasuna erakutsi zuen modu agerikoan. Kritika egiteko tonuak Barberena harritu zuen, nahiz eta "irainez baliatzea" ez zen EAJren asmoa izan

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Urriaren 3an egindako ohiko osoko bilkuran, 2018ko ordenantza fiskalekin batera, eguneko gai zentrala izan zen EH Bilduko Eneko Barberenaren liberazioa. Eudelek babesten duen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak jasotzen duenez, 10.000 biztanletik gorako herrietan, oposizioko alderdi nagusiko zinegotzi batek liberazioa eskatu dezake.

Proposamena alderdi guztiek babestu zuten, abstentziora jo zuen EAJk izan ezik. Botatu aurretik, bi argudio eman zituzten liberazioaren aurka: lehena, 2007an, ezker abertzalean indarrean zegoenean, EAJko zinegotzi bat liberatzearen aurka botatu zuela EAE-ANVk. Zinegotzi hura udal langilea zen, eta bi karguak aldi berean egitea legez bateraezina denez eskatu zuten liberazioa. Eta bigarrena, Maria Ubarretxenaren soldata ipar hartuta, EH Bilduk egindako kanpaina "erasotzaile eta

pertsonalizatua". EAJko zinegotzi guztiak banan-banan altxatu ziren Barberenaren "kontraesana" argudiatuz, ez zutela alde botatuko esanez.

### Bi aldeen gogoetak

Aurreko martitzeneko eztabaidaren ondoren, Eneko Barberenak eta EAJko udal taldeak oharrak helarazi dituzte, gertatukoaren gaineko hausnarkekin.

EH Bilduko zinegotziak zera esan du jeltzaleen aldetik jasotako kritikei buruz: "Osoko bilkuran, aurreko puntuetan izandako adostasun eta akordio maila ikusita, harritu egin gintuen EAJko zinegotzi guztien kritika politiko eta pertsonalen

**URRIKO BILKURAN GERTATUTAKOAZ HAUSNARTZEKO OHARRA ATERA DUTE BI ALDEEK**

tonuak. Ez da erraza kritika politikoaren, adierazpen askatasunaren, konfrontazio zilegiaren eta erasoaren arteko muga ezartzen. Ni naiz lehena onartzen ez dugula beti asmatzen horretan politikariok. Ez zen gustukoa izan niretzat astearteko osoko bilkura, gustatzen ez zaidan bezala, EH Bilduko zinegotzi bezala, alderdi politikoen egoitzetan pintaketak egitea, edota zinegotzi zehatzak irainduz eginitako Whatsapp kateak zabaltzea".

EAJk, aldiz, hau esan du: "Inondik inora ez da izan, eta ez da izango inoiz, EAJ-PNVren asmoa irain eta eraso pertsonalez baliatzea, eta puntu horretara heldu bagina, berresten dugu hori ez dela bidea".

Barberenak ez du gaiarekin lotutako polemika gehiagorik nahi, eta bere zeregin berrian zentratu nahi du. Arrasateko EAJk espero du ika-mikak arrasatearren alde lan egiteko indarra batzeko balio izatea. Bi tesuak *Goiena.eus*-en daude.

## Kultureteko informatika laguntzailea eztabaidagai

Oposizioak lanpostu hori kentzea kritikatu du, eta Udal Gobernuak dio abenduko bilkuran onartu zela aho batez

**X.G. ARRASATE**

Arrasateko oposizioko hiru alderdiek mezu bateratua plazaratu dute aste honetan, Udal Bibliotekako zerbitzu publikoetan izandako "murrizketa" bat salatzeke. Bertan azaltzen zenez, gehiengo sindikala duten ELA eta LAB sindikatuak iritzi bera azaldu dute udaletxean eginitako azken Pertsonal Batzordean.

Hain zuzen ere, Bibliotekako ordenagailuetako aholku zerbitzua kentzea da salatu dutena, baita lan-karga hori Bibliotekako gainontzeko langileen gain uztea, "lanorduen gehikuntzarik egin gabe".

Zerbitzu hori eskaintzeko bi langile zeuden urtarrilaren 18ra arte: bata goizez eta bestea arratsaldean. Baina ordenagailuetako erabiltzaileak autonomoak zirela iritzia, lanpostu hori irainduz gaitzea proposatu zen eta alderdi

guztien babesarekin onartu zen abenduaren 20an egindako osoko bilkuran.

### Udal Gobernuaren erantzuna

Udal Gobernuak hau erantzun du: "Proposamen horren alde botatu ondoren, harritu egiten gaitu oposizioa erabaki horren aurka azaltzeak".

Bibliotekako langileekin batzartu ostean, ekainean, lau hilabeterako langile bat kontratatzea erabaki zen, ordenagailuen kudeaketan sortzen eta jasotzen diren intzidentziak zenbatzeko. Lanpostua beharrezkoa den edo ez ebaluatzea zen asmoa, baina Bibliotekako langileek salatu zuten udako hilabeteak ez zirela horretarako aproposenak. Jasotako datuekin, Udalak egokitzen jo du goizez zegoen langilea behar handiagoko beste sail batera bideratzea.



IMANOL SORIANO

## Mirariaren keinua Kataluniari

Askok uste bezala, Kataluniari keinu egin zion Maritxuk. Pil-pilean dagoen gaiari lotuta, Komisiñuak eta Errepublikak Katalaneko Gobernuak sinatutako akordioaren bidez, askatasun osoz mugitzeko baimena eman zieten arrasatearrei. Horretarako, 2.000 agiri banatu zituen Maritxuk Herriko Plazan batutako lagunaren artean.





Juan Luis Lizarralde diseinatutako mapa, berriztatze lanak egin ostean. GOIENA

# Udalatx tontorreko maparen urrezko ezteiak

1967ko urriaren 12an jarri zuten Arrasateko gailurrik altueneko orientazio mapa. Frankismoan inauguratu zen, mendian edozer gauza antolatzekeko gobernatzailearen baimena behar zenean, eta Guardia Zibilaren egunean egitea ez zen kasualitatea izan

## Xabi Gorostidi ARRASATE

"60ko hamarkadan, mendizaleen artean, edozein irteera antolatzeko gobernatzailearen baimena beharrezkoa zen. Baita haurrekin mendi-irteeratxo bat egiteko ere. Eta zerbait egiten zen bakoitzean Guardia Zibilaren bisita jasotzea ohikoa zen", azaldu du Alvaro Arregik, Besaide Mendi Elkarteko kideak.

## Urriaren 12a apropos

Biharko eguna Hispanitatearen Eguna da, baita Guardia Zibilaren eguna ere. Bada, honela azaldu du Arregik, zergatik aukeratu zuten egun hura: "Guardia zibilak dotore-dotore jantzita egoten ziren, eta ospakizunetan ematen zuten egun osoa. Hori hala izanik, hainbat gauzatarako aprobetxatzen zen egun hori. Besaide Mendi Elkartearen kasuan, maparen inaugurazioa edota Udalatxeko Arrasateko parteko gurutzeta jartzeko baliatu genuen egun hura".

## Bultzatzailea: J. L. Lizarralde

Mapa jartzea proposatu eta ondoren hura diseinatu zuen pertsona Juan Luis Lizarralde izan zen (Arrasate, 1937).

Jaizkibelen antzerako mapa bat zegoela ikusita, jartzea proposatu zuen, behin Udalatxeko gailurrera igota, ondoko tontorrak zeintzuk ziren errazago identifikatzeko.

"Vasco Navarro liburutik hiru mapa atera eta bata bestearen gainean jarri nituen. Etxeko konpasik handiena hartuz borobil bat egin, eta barruan geratzen ziren mendi guztiak izendatu nituen mapan, bakoitzaren altuera ere zehaztuta", azaldu zuen 2015eko abenduan.

## Gobernatzailearen baimena

Orduko Besaide Mendi Elkarteko presidente Venustiano Urangak etxeko lanak eginda zeuzkan, gobernatzailearen oniritzia zuelako ospakizuna egiteko, baina, baimena esku artean izan arren, trabarik ez zitzaion falta izan.

"Guardia Zibilak ez zuen nahi ekitaldia autorizatzerik. Astebete lehenago, egunero deitu zioten kuarterera Urangari, baimenik ez zegoela esateko. Gobernatzailearen baimenaren kopia erakutsi arren, originala eskatzen zioten, kopiak ez omen baitzuen balio. Hala, ekitaldia egin baino egun bat lehenago mehatxatu zioten esanaz bera izango zela egun horretan gertatzen zen edozein ekintzaren erantzule, eta hark erantzun zien bera beti zela bere ekin-tzen arduradun".

Gaur egun 95 urte ditu eta Donostian bizi da Venustiano Uranga.

## Udal langileen erretiroak kezkagai EH Bildurentzat

Euskara eta Pertsonal sailletako arloburuak "alternatibarik gabe" erretiratzeak sortu die kezka

### X.G. ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk prentsa oharra kaleratu du, Udaleko langileen erretiroen gaineko kezka azaltzeko.

Bertan, hauxe diote: "Azken Pertsonal Batzordean Arrasateko EH Bilduk Udal Gobernuari eskatu zion plan bat egiteko udal langileen jubilazioak garaiz aurreikusita eta ordezkatze prozesuak behar diren moduan egiteko".

### Bi aurrekari

EH Bilduren kezka Udaleko bi sailletako arduradunen erretiroen ostean heldu da, eta hurrengo erretiroak hobeto egiteko eskatu diote Gobernuari.

"Eskaera dator jakinik bai Euskara Sailean bai Pertsonal Sailean arloburuak jubilatuta zirela alternatibarik gabe, eta hori ez da ona udal funtzionamenduarentzat, ezagutza galtzen delako, hainbat egitasmo eteten direlako, eta abar. Jakinik, gainera, udal arlo zehatz batzuetan urte gutxian langile asko jubilatuko direla aldi berean, esaterako, Kontu Hartzailtzan edota Udaltzaingoan, orain hasi behar da kudeaketa onaren bidetik langileen ordezkatzeak planifikatzen eta aurreikusten".

## Igeltsero bat, peoi bat eta hiru pintore behar ditu Udalak

Arrasateko Udalak herriko hamabost langabe kontratatuko zituela iragarri zuen. Pasa den astean egin zen lehen deialdia, hiru lanposturekin, eta aste honetan egin da bigarrena, bost lanposturekin.

Kirol Sailak kudeatzen dituen instalazioetan hainbat pintaketa-lan egiteko pintore behar da, eta beste bi pintore jarlekuak,



NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

## Bizikletentzako gunea

Azken asteburu hauetan Enduro txapelketa eta Mondran Bikeraren eskutik txirindularitza izan dugu protagonista Arrasaten. Jakina da gure bailara mendi bizikletaren erreferente bihurtu dela Euskal Herrian. Igandeko martxan, Ziorlako batek hau bota zidan: "Non dago gure mangera? Kartel handi bat jartzea ahaztu zaigu!".

Lotsaz gogoratu genuen: herriko bizikleta elkarte guztiek, alderdi politiko batek eta Ziorlako alkateak udaletxean bizikletak garbitzeko gunea aspaldi eta askotan eskatu dugula. Auzolanean egitea ere eskaini dela... alferrik.

Kiroldegiaren 40. urteurrena ospatzeko ikuskizunetan 4.000 euro gastatzen dituen herri honetan, momentuz ez dago mangerarentzat lekurik. Baliteke aurrekontu parte hartzaileen bitartez gauzatea, *show*-ak ikaragarriko pisua duelako legealdi honetan.

Milatik gora dira kirolerako eta desplazamenduetarako bizikleta erabiltzen duten herritarrak, nahikoa arrazoi kiroldegitik kanpo ere kirol azpiegiturak beharrezkoak direla bistartzeko. Baina mangera ziztrina, kirol kudeaketaren eta ikuspegiaren adierazle penagarria bihurtu zaigu.

barandak, kale seinalizazioak eta eraikinak margotzeko.

Gipuzkoa etorbidean espaloiak konpontzeko igeltsero bat lortu nahian dabil Udala, eta harekin batera arituko den peoi baten premia ere badago.

Lanpostu guztien iraupena lau hilabete eta erdikoa da, eta jarlekuak, barandak, kale seinalizazioak eta eraikinak margotzeko pintoreen kasuan, bost hilabetekoa. Izen emateak Lanbiden egin beharko dira urriaren 16a baino lehen.





Justin Satchell. IMANOL SORIANO

## "25-30 puntu sartu nahi ditut partidu bakoitzean"

Justin Satchell estatubatuarra izan da Ointxe!-ren azken fitxaketa 2017-2018 denboraldirako, eta gogoz eta ilusioz beteta datorrela nabarmendu du; bere maila erakusteko lehen aukera bihar izango du, 18:30ean, Iturripen, Valladoliden aurka

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Ameriketako Estatu Batuetako Miami hirian jaio zen Justin Satchell -1,95 metro-, 23 urteko jokalaria gaztea.

Taldea indartzeko helburuarekin fitxatu du Ointxe!-k, eta hura ere gogotsu dago. "Denboraldia hasteko eta nire maila erakusteko gogoz nago", dio Satchellek. Erasoan zein defen-

tsan, bietan maila ona duela onartu du estatubatuarrak, eta taldeari ahalik eta gehien lagundu gura diola adierazi du. "Taldea paper garrantzitsua izan nahi dut. Partiduko 25-30 puntu sartzea espero dut, taldeari ahalik eta gehien laguntzeko. Taldeari dagokionez, espero dut partidu asko irabaztea eta partidu guztietan garaipena

lortzeko borrokan ibiltzea", azaldu du estatubatuarrak.

Bere lehen esperientzia izango da European, eta aurtengo denboraldia *trampolin* moduan erabili gura du. "Nire asmoa da hemen gauzak ahalik eta ondoen egitea, ondoren liga hobe batean jokatu ahal izateko eta nire ibilbide profesionala aberasteko", azpimarratu du.

## Literatur solasaldien lehen saioa urriaren 26an egingo dute

Julen Belamuno idazlearen 'Gaueko zaintzailea' liburua izango dute hizpide, lurre Ugarte dinamizatzailearekin

### E.A. ARRASATE

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere literatur solasaldiak egingo dituzte Kulturategiaren bibliotekan. Abendura bitartean, hiru saio egingo dituzte. Lehen saioan, Julen Be-

lamunoren *Gaueko zaintzailea* liburua gainean ariko dira. Bigarren, azaroaren 30ean, Maider Agirrerren txanda izango da *Bihotzero* lanarekin -idazlea bera Kulturategiaren izango da-. Eta, azkenik, Mircea Cartares-

curen *Erruletatzailea* liburua, abenduaren 13an.

Solasaldeen liburua irakurri eramanango dituzte saioetara, eta liburua gainean solasaldiak izango dituzte, Iurre Ugarte dinamizatzailearekin.

Parte hartu nahi duenak liburutegian du izena emateko aukera eta izena ematearekin batera liburua bera emango zaio, saioa liburua irakurri joan dadin.

Urtariletik ekainera ere beste hainbat saio egingo dituzte.



Carlus Groves. ACB.COM

## Azken estatubatuarra Arrasaten

Arrasaten jokatu zuen azken estatubatuarra Carlus Groves izan zen, 1995-1996 denboraldian. Gainera, denboraldiko azken zatia ezin izan zuen Arrasaten jokatu; izan ere, jokalaria Baskoniari utzi behar izan zion orduko Urbina Maltzaga taldeak.

Arrasaten denbora laburra darama oraindik. Hala ere, oso gustura dago: "Oraingoz, oso gustura nago Arrasaten. Herri lasaia da eta bertako jendea oso gertukoa eta adeitsua dela iruditzen zait. Desberdina da. Gainera, hemengo jana asko gustatu zait", dio.

### Bihar, Valladolid aurkari

Lehenengo partidua galdu ostean -Grupo de Santiago Automocion taldearen aurka 87-73 galdu zuen pasa den astean-, denboraldiko lehen garaipena eskuratzen saiatuko da MU, Universidad de Valladolid taldearen aurka. Bihar, eguena, izango da hori, 18:30ean, Iturripen.

Harmailak beteta ikusi gura ko lituzke Oihane Agirrek, Ointxe!-ko presidentea. "Bihar denboraldiko lehen garaipena eskuratu behar dugu, eta horre-

tarako guztion beharra egongo da", adierazi du.

Azken fitxaketa -Satchell- jokatzeke moduan egongo da.

### Bazkide kanpaina zabalik

Urteroko moduan, bazkide kanpaina zabaldu du Ointxe!-k, denboraldi berrirako. "Bazkide egin nahi duenak biharko partiduan izango du aukera, Iturripen bertan. Gainera, txartelak jasotzeko aukera ere izango dute egungo bazkideek", adierazi du Agirrek. Urtean 30 euroko kuota ordaindu beharko du bazkide izan nahi duenak.

## "GUSTURA NAGO ARRASATEN. HERRI LASAIA DA ETA BERTAKO JENDEA OSO ADEITSUA"

## Los Amantes taldearen kontzertua bihar, gaztetxean

Arrakasta handiarekin hasi du bidea aurten Kooltur Ostegunak ekimenak, Glaukomaren kontzertu jendetsuarekin.

Arrakastarekin jarraitzeko, bigarren gonbidatua Los Amantes taldea izango da. Castelloko taldea da eta eskarmentu handiko hiru musikaririk osatzen dute. Patricia abeslaria Los Romeos talde mitikoko liderra

izan zen, eta gainontzeko bi ki-deak Castelloko punk-rock eszenan trebatutakoak dira.

Hirukoteak power-pop generoa lantzen du; hau da, melodia handiko rock gitarra-zalea.

Bira honetan, Shock Treatment taldeko Cockyrek grabatutako *Open 24 hours* izeneko hirugarren diskoa aurkezten ari da hirukote valentziarra.

Emanaldia bihar, eguena, izango da Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Sarrerak bost euro balioko ditu, betiko moduan.



# Kiroldegiko gimnasioa, guztiz itxuraldatuta

Udalak dagoeneko amaitu ditu kiroldegiko gimnasioko bigarren eta azken faseko lanak; lehen fasean gela handitu zuten eta orain hura egokitu dute, intsonorizatu, zoru egokia jarri eta leihoak berritu; astelehenean hasi dute pilates ikastaroa han

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Itxuraldatuta ireki ditu atek kiroldegiko gimnasioak. Izan ere, berrikuntza lanak egiten aritu dira uztailetik hona, eta dagoeneko erabilgarri dago guztiz berrituta geratu den gela. Lanen bigarren fasea izan da bukatu berri dutena; lehenengoan, aldagelak eta ur berogailua berritu zituzten, eta iaz, kiroldegiko gimnasioa egokitzen hasi zen Udala, lehen solairuan zegoen gimnasio zaharra handituz, komun berriak eginez eta barra kenduz. Bigarren fase honetan, gimnasioa intsonorizatu dute, zoru egokia jarri eta leihoak berritzeaz gain.

Behin gela egokituta eta berrituta, pixkanaka behar dituen azpiegiturak gehitzen joango da Udala. Oraingoz, berogailuak eta materiala txukun gordetzeko tresnak erosiko dituzte eta ondoren, gainontzeko gauzak.

**Ekintzak antolatzen**

Orain, ekintza guztiak ordenatzen eta antolatzen dabil Udala, ahal dena bertan sartu ahal izateko. Gauzak horrela, Aramaioko lehenetarako identifikatzeko prozesuan irten zen beste puntu bat gauzatu da obra horren amaierarekin. Azken finean, herria lokal gehiago egokitu beharra antzeman zen pasa den udaberrian egindako Aramaioko lehenetarako prozesuan. Herri-tarren iritzia jaso ostean, askotan agertu zen gaia izan zen kiroldegia egokitu beharrarena.

Horri lotuta, Udalak azpimarratu du aurrerapauso bat dela gimnasioa erabilgarri izatea, azken finean, lokal bat gehiago delako ekintza eskariari aurre egiteko.

Orain arte, antolatutako ekintza guztiak –mantentze gimnasia, yoga, pilatesa, euskal dantza, flamenkoa...– leku ezberdin batean egin izan dira, eta, gela berri horrekin, horri irtenbidea



Kiroldegiko gimnasioa guztiz berrituta geratu da. ARAMAIOKO UDALA

## GELA BERRIAN EZ DIRA EKINTZA GUZTIAK SARTUKO; HORRETAN LANEAN SEGITUKO DU UDALAK

eman gura izan zaio. Hala ere, Udalak aurreikusten du gimnasio horrek ez diela herrian egin-goto diren ekintza guztien beharrei erantzun eta oraindik esparru horretan lanean jarraitu beharko dela ohartarazi du, ekintza bakoitza egiteko leku egokia egon dadin.

**Pilates ikastaroa, martxan**

Gimnasio berrian egingo den ekintzetako bat pilates ikastaroa izango da. Hain zuzen ere, astelehen honetan hasi dituzte saioak.

Berrikuntza bezala, Udalak bi aukera eskaini ditu aurtengo ikasturtean, goizez eta arratsaldean, herritarrek saioak jasotzeko aukera gehiago izan ditzaten. Hala, bi talde sortu dira, eta, horrela, txandaka lan egiten dutenek ere aukera izango dute pilatesa egiteko, eskolarik galdu gabe: ahal dutenean, goizez, eta

bestela, arratsaldean. Goizeko taldean hamar pertsona daude izena emanda eta arratsaldekoan, berriz, hamabost. Azkenik, lau pertsona txandaka arituko dira.

Ordu-tegiari dagokionez, goizeko taldeak martitzen eta eguenean izango ditu saioak, 19:45etik 20:45era. Arratsaldeko taldearen saioak, aldiz, astelehenean eta eguenean izango dira, 10:30etik 11:30era bitartean.

Irakaslea Iker Arriolabengoa izango da. Izan ere, azken urteotako ibilbidea eta balorazioa ikusita, ikasleak eta Udala oso gustura daude harekin.

**Kantxaren alokairua**

Bestalde, kiroldegiko kantxa alokatzeko aukera ere egongo da aurtentzen.

2017-2018 ikasturtean zehar izango dituen egutegia eta ordutegia zehaztu dituzte, kirol talde ezberdinen eta eskolaz kanpoko bestelako ekintzekin.

Beraz, astean zehar, honako ordu hauek egongo dira erabilgarri urtean zehar: martitzenetan, 17:00etatik 21:00etara; eguenean, 20:00etatik 21:00etara; eta egubakoitzetan ere ordu berean, 20:00etatik 21:00etara.

## 26. Kaleko Margo Lehiaketa egingo dute bihar, eguena

09:00etatik aurrera zigilatu beharko dira lanak Sastiñan eta 14:00ak baino lehen entregatu beharko dira

**E.A. ARAMAIO**

Edonork parte hartu ahal izango du bihar egingo duten Kaleko Margo Lehiaketan.

Estiloa eta teknika libreak izango dira eta edozein material erabili ahal izango da margotzeko, baina materiala etxetik eraman beharko dute parte-hartzaileek.

Egunean bertan egin beharko dira lanak, aire zabalean, eta herrian, Aramaion, oinarritutakoak izan beharko dute.

Epaimahai batek erabakiko du lanik onenak zeintzuk diren

eta 18:30ean emango du erabakiaren berri, Sastiñan. Une horretan banatuko dira sariak.

Sariei dagokionez, irabazleak 700 euro eramango ditu, bigarren sailkatuak 500 euro eta hirugarrenak 400. Lehenengo aramaiorrrak, berriz, 150 euroko saria izango du. 16 urtez azpikoetan –2001ekoak barne–, irabazleak 150 euroko txartel bat eramango du, pintura materiala erosteko, bigarrenak 100 eurokoa eta hirugarrenak 50 eurokoa.

Urriaren 13tik 16ra ikusgai egingo dira lanak, Sastiñan.



LEIRE GOROSABEL

## Jendetza batu da Untzillan

Bertso afaria, Tor Magoaren ikuskizuna, parrillada, dantzaldia, eta abar izan dira asteburuan Untzillako jaietan, eta jende ugari hurbildu da. "Oso gustura gaude jaiak emandakoarekin. Adin guztietako jendea batu da, eta oso giro onean igaro ditugu jaiak. Beraz, guztiok pozik", adierazi du Jose Luis Beitiak, Untzilla elkartearen presidentea.

## Garraio eta euskara laguntzak emango ditu Udalak

Pasa den ikasturteko ikasleei zuzendutako laguntzak dira. Garraio arloko laguntzari dagokionez, 48 eskaera jaso dira eta bakoitzak 62,50 euro jasoko ditu. Izan ere, 3.000 euro egokitu ziren. Euskara arloan, berriz, hiru eskaera aurkeztu dira eta bakoitzari, ordaindu duen matrikularen %80 emango zaio, %80ko asistentzia ziurtatzen badu.

## Murugainen auzolana egingo da urriaren 21ean, zapatua

Murugain proiektua zabalkunde prozesuan dago, orain arte lortutakoa ezagutarazteko. Hala, Untzillatik Murugain puntara igotzeko bidea seinaleztatu nahi da eta Untzillan informazio panel bat jarri, Murugainek gordetzen duen historia eta aberastasuna azalduz. Auzolanean egingo dute hori, hilaren 21ean, 09:00etan hasita.



# Nagusien laguna den herria izateko lanean

Euskadi Lagunkoia egitasmora batuko da Aretxabaleta eta urriaren 19an egingo du talde eragileak lehen bilera. Ondoren, lantaldea osatuko dute eta orain dela lau urte Basotxo erretiratuen elkarteak egindako diagnostikotik abiatuta hasiko dira lanean

## Mirari Altube ARETXABALETAKO

Euskadi Lagunkoia egitasmora rekin bat egitea onartu zuen Udalak uztaileko osoko bilkuran, eta urriaren jarriko du hori abian. Ez dira, baina, hutsetik hasiko lanean, orain dela lau urte egin zuten-eta Basotxo erretiratuen elkarteak kideek Aretxabaletako diagnostikoa.

## Egindako lana eguneratu

Herri lagunkoien kontua Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) bultzatutako egitasmoa da, eta Jaurlaritzak ere horrekin bat egin du. Herri lagunkoi definitzerakoan, zera diote: "Ingurune integratzailea eta irisgarria da, pertsonen arteko bizikidetzeta eta adinekoen zahartze aktiboa sustatzen duena". Hala, adinekoen parte hartzetik abiatuta herriaren gaineko diagnostikoa bat egingo da, eta gero ekintza plan bat idatzi lagunkoi izateko eginbeharrak zehazteko. "Euskadi Lagunkoia antolatutako jardun-



Uribarri zinegotzia, Etxebarria, Basotxoko ordezkaria eta Elkoro alkatea. MIRARI ALTUBE

naldi batean lehen eskutik eza-gutu genuen egitasmoa, eta Udala Gobernuaren jarrera irekiarekin bat egiten duenez horri heltzea erabaki genuen", azaldu du Kar-mele Uribarri Ongizate Saileko zinegotziak, eta gaineratu du:

"Diagnostikoa, gainera, eginda dago. Lan hori egindakoekin bilera egin dugu dagoeneko, eta talde eragileko kide izan daitezten eskatu diegu". Talde eragile horrek berrikusi eta eguneratu egingo du diagnostiko hura, eta

ondoren, talde handiagoa osatuko dute lana osatzen joateko. Hiru urterako ekintza plana zehaztuko dute gero.

## Debagoiena, Gipuzkoan aitzindari

Basotxoko zuzendaritza batzordeko kide Pedro Etxebarriak jarri zuen abian 2013an egitasmoa eta orain ere hura izango da bultzatzailea. "Hitz egiten ikasteko ikastaroa antolatu genuen orduan, eta lantzeko gaia izan zen *Aretxabaleta herri lagunkoia* egitasmoa. 21 lagun elkartu ginen eta hamabost bilera egin genituen. Bukatutakoan konturatu ginen Udalarendako tresna interesgarria zela gure lana", jakinarazi du Etxebarriak.

Etxebarria ordezkari den Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak hartu zuen Jaurlaritzako planaren garapean jarduteko ardura, eta Antzuola izan zen lanean hasi zen lehenengo herria: "Bikaina da han egindako proiektua, ez dut hoberik ezagutzen". Debagoieneko gainerako herriak ere lanean dabiltzala azaldu du: "Eskoriatzak asko aurreratu du; Bergaran ere proiektu polita dute; eta nire nahia da gainerako herrietan ere abiaraztea".

Etxebarria ordezkari den Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak hartu zuen Jaurlaritzako planaren garapean jarduteko ardura, eta Antzuola izan zen lanean hasi zen lehenengo herria: "Bikaina da han egindako proiektua, ez dut hoberik ezagutzen". Debagoieneko gainerako herriak ere lanean dabiltzala azaldu du: "Eskoriatzak asko aurreratu du; Bergaran ere proiektu polita dute; eta nire nahia da gainerako herrietan ere abiaraztea".

## Zortzi esparru lantzeko

Lagunkoitasun mailaren diagnostikoa egiterakoan, zortzi esparru hartzen dira kontuan: garraioa; etxebizitza; parte-hartzea eta gizarte sarea; errespetua;

herriarren parte-hartzea eta enplegua; komunikazioa eta informazioa; gizarte eta osasun zerbitzuak; eta aire zabaleko lekuak eta eraikinak. "Kontu horiek guztiak lanean hasiko den taldeak zehaztuko ditu", dio Etxebarriak. Hori horrela, irisgarritasun arazoei helduko diete, etxebizitza eta garraio kontueti...: "Antzeman genituen gorpil aulkiak pasatzeko maila handiegiak, espaloi labanak, zuhaitzen inguruetan zintarri arriskutsuak... Adibidez, parrokietatik Lausittara doan ibai gaineko espaloia zabaltzeko eskara orduan jaso genuen", eta gaineratu du: "Baina badaude beste arlo batzuk ere; adibidez, medikuarengana joan eta horrek aurpegira begiratu gabe hitz egitea; garraio kontuak...".

Urriaren 19an talde eragileak elkartuko da, eta lanean hasi. Ondoren deialdi zabala egingo dute eta beste eragile batzuk sartu, lantalde anitza eratzeko. "Nagusiekin batera, nagusien zaintzaileek parte hartzea ere oso interesgarria da. Era berean, zaharren egoitzan bertan beste lantalde bat osatzea gurako nuke", dio Etxebarriak.

## HERRI IRISGARRIA ETA INTEGRATZAILEA LORTZEA DA ASMOA, ADINEKOEN ZAHARTZE AKTIBOA SUSTATUTA

## Oroko eta Larrinoko kontuak ezagutzeko aukera bihar

'Ezagutuz' izena jarri dioten irteera Aitor Antxia Leturiak gidatuko du; domekan, ostera, Aretxabaleta erakutsiko du

## M.A. ARETXABALETAKO

Oro eta Larrino inguruko kontuak ezagutzeko dituzte bihar, urriak 12, *Ezagutuz* irteerara gerturatzen direnek. Historia kontuetan aditua den Aitor Antxia Leturiak egingo ditu gidari lanak, beste behin. 10:30ean irtego dira Herriko Plazatik -oinze zein autoan- eta izena aurrez ematea eskatu dute -Arkupen-.

"XVI. mendeko dokumentuetan dagoeneko agertzen da Oro", azaldu du Antxiak, eta gaineratu: "Bi ermita zeuden, San Martin eta Sanjuangoa, eta horien

berri emango dugu, baita Iturralde baserriaren armarrak aztertu ere". Jesus Osinaga auzotarrak egingo die lagun, eta, Antxiarekin batera, hango bitxikeriak eta kontu zaharrak azalduko dizkie elkartutakoei.

Larrino elizatera joko dute handik, eta, besteak beste, Telleria baserria -teila egiten zituztena- eta Uribe baserria -Juan de Uriberen jaioterria- bisitatuko dituzte. "Elizan ere sartuko gara, XVIII. mendeko aldare kuriosoa ikustera eta elizpean ere badago zerbait", dio Antxiak.



Larrino elizatea lainoan. PELI BELTRAN DE HEREDIA

## Domekan, herriaren erdigunea

Datorren domekan, urriaren 15ean, ostera, Aretxabaletako erdigunea erakutsiko du Antxiak, Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako *Ezkututxo altxorrek* ekimenaren barruan. Kanpo-

santuan hasi (12:00) eta Durana kale bukaeraraino iritsiko dira, kuarteletik eta udaletxeko lorategitik pasatu ostean. Bisita gidatua alde aurretik eskatu behar da -turismo@debagoiena.eus edo 943 79 64 63-.

## 'Tomaxen abenturak' domekan neska-mutikoendako

*Hiru ipuin, hamaika irri* antzez-lana izango dute neska-mutikoek domekan, urriaren 15ean, Arkupen (17:00). Tomax eta Muxugorri pertsonaiak liburutegira joango dira, eta, irakurtzen ez dakitenez, ume bati ipuinak kontaraziko dizkiete: *Txanogorritxo, Hiru txerritxoak, Hame-lingo txirularia*... Gero, euren erara antzeztuko dituzte horiek. Sarrera, 3 euro da.

Urriaren 28an, zapatua, ostera, Maider Galarza ipuin kontalarriaren bisita jasoko dute Haur liburutegian. *Maleta kontuak* kontaketa eskainiko die umeei; maleta barruan dakarren guztia erakutsi eta ipuin mordoa kontatuko ditu (11:30).





Hainbat adinetako herriko pilotariak, Jon Etxebarria entrenatzailea alboan dutela. MIRARI ALTUBE

# Gogotsu ekin diote denboraldiari pilotariek

5 eta 25 urte arteko 50 bat gazte elkartzen dira Iturrigorri frontoian entrenamendu saioetan. Aretxabaeta Kirol Elkarteko Pilota Saileko jokalariek dira eta Jon Etxebarriaren eta Unai Errastiren aginduetara jardungo dute lanean 2017-2018an

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Herriko pilotariek ekin diote denboraldiari. Gogotsu hasi dituzte entrenamendu saioak, eta, erronka handirik jarri barik, pilotaren bueltan gozatzea da helburua, ahalik eta emaitza onenak lortuta.

**50 gazte inguru**

Astelehen, martitzen eta eguazten arratsaldeetan Aretxabaeta Kirol Elkarteko pilotariek dute txanda Iturrigorri pilotalekuan. Itogin kontuak dagoeneko ahaztuta Udalak egindako lanei esker, baldintza ezin hobeak dituzte orain. 5 eta 25 urte arteko 50 bat elkartzen dira, guztiak ere jokatzeke eta ikasteko ilusioarekin. "Garrantzitsua da gustura etortzea, eta neska-mutiko hauek oso gustura datoz. Pentsa, 5 urtekoak ere hurbiltzen dira pilota esku artean ibiltzera", adierazi du Jon Etxebarria entrenatzaileak. Mutikoak dira gehiago aurtzen ere: "Baina badaude bi neska. Horiek ere oso gustura

hasten dira; arazoa izaten da pilota gogorretara salto egin behar izaten dutenean. Pena da, baina une horretan gehienek utzi egiten dute. Hala ere, probatzeko esango nieke, gure atek zabalik dituzte". Etxebarriarekin batera Unai Errastik ere jardungo du entrenatzaile lanetan.

**Kadeteetatik gazteetara**

Helburu zehatzik ez dute jarri. "Ondo lan egin, eta emaitzak etorriko dira", dio; izan ere, pilotarekin gozatzea dela garrantzitsua uste du.

Ondo egindako lanaren emaitzak jaso zituzten iazko denboraldian Aritz Zugastik eta Ibai Lasagabasterrek; txapelkunak izan ziren Udaberri Txapelketa-

**IAZ TXAPELDUN IZAN ZIREN KADETEEK GAZTE MAILAN JARDUNGO DUTE NOR BAINO NOR GEHIAGO**

ko hirugarren mailako kadeteen artean, eta Zugastik Gipuzkoako lau terdiko txapelketa ere irabazi zuen. 16 urteko bi eskoriatzarrek, aurtzen, gazte mailara egin dute salto, maila bat gora: "Iaz nagusiak geu ginen; aurtzen, ostera, gazteenak izango gara eta gu baino hiru urte nagusiagoen aurka jokatu beharko dugu. Ez da samurra izango", onartu dute bi gazteek. Hala ere, horrek ez ditu kikildu, eta, iaz hirugarren mailan jokatu bazuten ere, aurtzen bigarren mailan izena ematea erabaki dute: "Horrek esan gura du hobeekin jardungo dugula", argitu du Zugastik.

**Taldearen atek zabalik**

Entrenamendu saioak hasita egon arren, taldeko atek zabalik dituzte. Hori ezagutu gura izanez gero edo zelan lan egiten duten ikusi, pilotalekura hurbiltzea nahikoa da. Argibideak emateko gertu izango dira arduradunak.

## Euskararen erabilera indartzea helburu duen dinamiken bila

'Hitz egin' izeneko ekimena jarri du abian Loramendi elkarteak eta hiru bilera egingo dituzte herritarrekin

**M.A. ARETXABAETA**

*Zein dinamika garatu behar ditugu Aretxabaetan euskararen erabilera indartzeko?* Galdera horri erantzuten saiatuko dira datozen asteetan *Hitz egin* izeneko ekimenaren bueltan. Loramendi elkarteak jarri du abian, Aretxabaetako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskaltzaleen Topagunearen babesarekin, eta prozesu parte-hartzailea izango da: "Hiru egunez Aretxabaetako euskaltzaleak batu egingo gara herriko kolektibo ezberdinak barne hartuko dituen talde bat osatuz: gurasoak, helduak, gazteak, musikariak, kirolariak, merkataria..."

Hiru egun horiek zapatuak dira, honako hauek: urriaren 21a eta azaroaren 4a eta 18a. Arkupen egingo dituzte bilera guztiak, 09:30etik 12:30era. "Aretxabaeta euskalduntzeko zein lan eta nola egin behar dugun erabakiko dugu guztion artean hiru bilera horietan. Horretarako, zu bezalako euskaltzaleen laguntza ezinbestekoa da", diote egitasmoaren bultzatzaileek, eta gaineratu dute: "Pasa gaitzen hitz egitetik egitera!"

**Izen-ematea Loramendin**

Ekimenaren talde eragilea orain dela hilabete batzuk hasi zen lanean, eta dagoeneko herriko hainbat lagunekin egon dira lantaldeak osatzeko. Dena den, bileretarako deialdi irekia egin dute; hortaz, interesa duen edonork parte har dezake hausnarketa prozesuan. Horretarako, baina, aurrez izena emateko eskatu dute honako helbide honetara idatzita: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus). Argibideak ere bertan emango dituzte.

**'365 egun' proiektua**

Bilera horietan jasotako ekarpenetatik abiatuta, hainbat esparrutako proposamenak eta plangintzak garatu gura dituzte, baita *365 egun* proiektu berri-rako ere. Hain zuzen, *365 egun* proiektu hori Eusko Jaurlaritzaren eta Euskaltzaleen Topagunearen artean garatu dute, eta joan den zapatuan aurkeztu, Donostian. Abenduaren 3an hasita, nazio mailan jarriko da martxan, eta horren helburua da euskaltzaleak aktibatzea, egunerokoan euskarazko hizkuntza praktikak areagotzea eta hizkuntza ohituretan eragitea.



M.A.

## Matilde Sainzen akuarelak

Matilde Sainz Osinaga arrasatearraren akuarelekin bete da Arkupeko erakusketa aretoa. Basoa eta ur ertzaren figurak bakarka egin duen hirugarren erakusketa da, eta elementu organikoak eta ez organikoak ikuspuntu askotatik interpretatu ditu, kolore, forma eta kontraste ugari sortuta. Hilabete osoan egongo dira ikusgai.





Duela bi urte egindako Ti-tau! Umorezko Film Laburren Lehiaketan, Oñatiko talde bat oholztan. GOIENA

## Kamerak, mozorroak, umore ona, eta akzioa!

Eskoriatzan egingo den Ti-tau! Umorezko Film Laburren Lehiaketa indarberrituta dator aurten. Urriaren 28an izango da, eta, aurreko edizioetan ez bezala, helduen sailaz gain, 12 eta 16 urte arteko gazteen saila ere izango da

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatza plato bihurtuko da urriaren 28an. Izan ere, Eingeinke elkarteak Ti-tau! Umorezko Film Laburren Lehiaketaren seigarren edizioa antolatu du.

Umorea izan beharko da aurkezten diren lanen funtsa, eta, egun ederra pasatzeaz batera, gazte euskaldunen sormena bul-tatzeko helburuarekin ere an-

tolatu dute lehiaketa Eingeinke elkarteak kideek.

Lehiaketa ekainaren 10ean egitekoa zen, hasiera batean, baina atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek, antza, data ez zutelako ondo aukeratu. Hala, azken prestaketa-lanak eginda, izen-ematea zabalik dago, eta sari potoloak irabazteko aukera izango da; izan ere, 2.000 euro

banatuko dira saritan seigarren edizio honetan.

**Egin beharrekoa**

Ikus-entzunezko munduan aditua izan edo ez, lagunekin zein bakarka, barrez lehertzeko moduko eguna pasatzea da lehiaketaren helburu nagusia. Horretarako, gehienez ere lau minutuko umorezko film labor

bat grabatzea eskatuko zaie parte-hartzaileei. Argazki kamera, bideokamera edo mugikorra erabilia.

Goizean, 09:30ean, Ibarraundi museoaan batuko dira parte-hartzaileak, eta lanean islatuta agertu beharko den gaia eta bideoak bete beharko dituen baldintzak banatuko dira. Gaia objektu bat izango da eta herriko hainbat leku agertu beharko dira aurkeztutako lanean. Ideia pentsatu, grabatu eta bideoa muntatzeko 19:00ak arte izango dute helduen saileko parte-hartzaileek. Gazteen sailekoek, berriz, 18:00etan entregatu beharko dituzte lanak. Hala, antolakuntzak txoko bat emango dio talde bakoitzari, argindarrarekin eta wifiarekin, grabaketa planifikatu eta edizio-lanak egiteko –Ibarraundi museoaan–.

Lan guztiak *pendrive* batean entregatu beharko dira, eta horiek entregatu ostean, 20:30ean, luntxa egongo da, epaimahaiak lan guztiak ikusten dituen bitartean. 22:00etan, berriz, lanen proiektzioa eta sari banaketa egingo da Zaldibar antzokian; horrela amaituko da eguna.

Aurtengo edizioan, gazteen saila sortzea erabaki dute antolatzaileek. Gazteen artean teknologia berrien erabilera egokia sustatzeko, alde batetik, eta ikus-entzunezkoen mundura gerturatzeko asmoz, bestetik.

**Izen-ematea zabalik**

Izen-ematea *Titaulehiaketa.wordpress.com* webgunean egin beharko da, eta dagoeneko eman daiteke izena. Horretarako azken eguna urriaren 28a izango da, eta webgunean, bete beharreko datuez gain, lehiaketaren gaineko informazioa ere ikusgai dago.



GOIENA

### "Esperientzia bikaina dela uste dut"

**MIKEL LETONA**  
ANTOLATZAILEA

Iaz, ezin izan zuten lehiaketa antolatu, baina, beste urte batzuetan izandako arrakastaren ostean, aurten berriz antolatzea erabaki dute Eingeinke elkarteak. Berrikuntzak sartu dituztela adierazi du Mikel Letonak, Eingeinke elkarteak lehendakariak. **Zein berrikuntza daude aurtengo edizioan?** Inoiz baino sari handiagoak jarri ditugu. Bestetik, gazteen saila antolatzea erabaki dugu, gazteek ere gauza ederrak egin ditzaketela uste dugulako. **Lehiaketa aurretik azken mezurik?** Eskerrak ematea lehiaketa hau egitea posible egiten duten guztiei, eta jendea parte-hartzera animatzea. Izen-ematea zabaldu berri dugu, eta esperientzia bikaina dela adierazi nahiko nuke.

## Hasiera bikaina eman dio Tortolis ludotekak ikasturteari

Ate irekietan izandako arrakastaren ostean, hilabete honetarako plangintza prestatu dute dagoeneko

**I.B.** ESKORIATZA

Tortolis ludotekan, irailaren 25etik irailaren 29ra bitartean ate irekiak egin zituzten, eta haur ugari izan ziren bertan, egunetarako antolatu zituzten ekintzak egiten, baita ludoteka

ezagutzen ere. Honela azaldu du Nekane Atxagak, Tortolis Ludotekako hezitzaileak: "Ikasturte berrira ume dezente batu zaizkigu. Ate irekietan, sukaldaritza, kale jolasak, eskulanak, eta abar egin genituen, eta, hala,

arrakastaz hasi garela esan dezakegu.

Ludoteka bi txandatan banatzen da: 16:45etik 18:00etara –3-7 urte bitartekoak– eta 18:00etatik 19:15ak arte –8-12 urte bitartekoak–. "Txikiaren txandan haur berri askok izena eman dute. Eta bigarren txandan badugu kuadrilla polit bat. Beraz, oso pozik gaude dugun haur kopuruarekin". Bestalde, datorren astera begira, mahai-jolasak eta *Mugi kalera* ekimena izango dituzte, besteak beste.



Ate irekietan Tortolis ludotekan egindako sukaldaritza tailerra. TORTOLIS LUDOTEKA



# "Beste lan kultura bat ezarri nahi dugu"

**FERNANDO RASO** ESKORIATZA KE-KO SASKIBALOI ARLOKO ZUZENDARIA  
Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia saileko zuzendaria azaldu du denboraldi berrirako helburua emakumezkoen saskibaloia indarberritzea dela

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Emakumezkoen saskibaloiak indar handia du gaur egun Eskoriatza Kirol Elkartean. Izan ere, eskola-kiroletik hasi eta seniorretaraino dituzte taldeak, eta, gainera, kirol elkarteak hogeitortetik gora darama bailarako emakumezkoen saskibaloia gorenarean, batez ere, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako neskekin lanean. Gaur egun, bailarako erreferente bada ere, probintzia mailan ere badu bere atxikimendua. Hala, denboraldira berrira begira, talde guztiak indarberritu nahi dituzte, eta, horretarako, Julen Fornies entrenatzailea fitxatu berri dute Gasteiztik.

**Zein egoeratan dago gaur egun saskibaloia saila?**

Saskibaloia sailean hamar talde ditugu gaur egun, saski-eskola eta federatuta dauden taldeen artean, 100 jokalaritik gora ditugu. Gainera, talde ezberdina gara; izan ere, emakumezkoen saskibaloia soilik lantzen dugu, eta halakoak Gipuzkoan oso gutxi daude. Iaz, denboraldi bikaina egin zuten maila guztietako taldeek, eta aurten, lanak hobetzeko asmoz, saskibaloia sailerako kirol zuzendari berria fitxatu dugu.

**Gasteizko Julen Fornies, hain zuzen ere, ezta?**

Ibilbide luzeko pertsona nahi genuen, esperientziaduna. Ez bakarrik jokalariekin lan egiteko, entrenatzaileak ere hazteko. Duela hiru urtetik gaude Araskirekin -Arabako Emakumeen Saskibaloia- elkartuta, eta eurek gomendatu ziguten Fornies ekaritzea.

**Zertarako ekarri duzue?**

Beste lan kultura bat ezarri nahi dugu taldean. Euskarari ere garrantzi handiagoa emanez. Uste dugu aldaketarako denbora beharko dugula, baina erantzun hobea ematearen aldeko apustua egin nahi genuen.



Fernando Raso, Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia saileko zuzendaria. GOIENA

**"DENBORALDI BERRI HONETAN, EUSKARARI BEHAR DUEN GARRANTZIA EMAN GURA DIOGU"**


**Aurtengo helburuak ezarri dituzue?**

Taldeka ezarri ditugu. Oinarrian, txikitatik dibertitu beharra daukate, eta talde ezberdinek elkar ezagutzea ere nahi dugu. Talde ezberdinak batuz, euren artean sendotuz.

## Julen Fornies, kirol elkarteko parte

Julen Fornies gasteiztarra Eskoriatzako Kirol Elkarteko parte izango da denboraldi honetan. Araskitik datorren entrenatzailea elkarteko saskibaloia arloko kirol zuzendari berria izango da. Hala, eskola kirolek hasi eta seniorretaraino dauden talde guztiak indartzeko etorri da. Horrez gain, kultura berri bat ezarri nahi dute Eskoriatza kirol elkarteak osatzen duten kideek, talde ezberdinen arteko elkarlana bultzatuz eta euskarari ere garrantzia handiagoa emanez.

Esperientzia handiko entrenatzailea da Fornies; esaterako, LEB Platako entrenatzailea izan da Araberri taldearekin, Baskoniarekin ere lan egin du, Lehen Nazional Mailako Araskiko lehen entrenatzailea da eta Araski emakumezkoen ligako entrenatzaile laguntzailea ere bada...



Julen Fornies. ZUZENKI PRESS



Gatzaren Egunean, gatzarekin egindako ikurrina. GOIENA

## Urriaren 22an ospatuko den Gatzaren Eguna, ekintzaz beteta

Urteetan gatzaren produkzioan lanean aritu diren gazkinei omenaldia egingo diete Gatz Museoa

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagan Gatzaren Eguna ospatuko dute urriaren 22an, eta, egunerako, zenbait ekintzaz osatutako egitaraua prestatu du Udalak. 11:00etatik 14:00etara bitartean gatzaren eta produktu ekologikoen azoka izango da frontoian, eta, azokak iraun bitartean, hainbat ekintza izango dira; gehienak txikieneztat zuzendutako tailerrak izango dira.

Gatzaren Eguna herrian duten gatzaren kultura zabaltzeko asmoz antolatu dute, hala, herriari nortasuna ematen dion kultura sustatuz. 11:00etan, 12:00etan, eta 13:00etan Gatz Museora bisitak egingo dira. 10:30ean, landare jangarriak jasotzera irteera egingo dute basora. Jakoba Errekondo izango da bertan, gatzaren paisaia kulturala azaltzen, gidatzen, eta irteera plazatik izango da.

11:00etan, berriz, gatz-xaboiak egiteko tailerra izango da museoan, eta aurrez eman beharko da izena, 943 79 64 63 telefonora deituta edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus) helbidean. 12:00etan, gatz mota ezberdinen dastaketa egingo da saiheski-pintxo ekologikoekin. Ondoren, 12:30ean, umeentzat zuzendutako tailerrak egingo dira, gatz erabiliz, eta, horrekin batera, trikitilarietako herria girotuko dute.

**Gazkinei aitortza**

14:00 aldera, Leintz Gatzagako gazkinei omenaldia egingo diete. Hala, urteetan gatzaren produkzioan postu ezberdinetan izandako langileek bideo proiektio batekin, bertsoekin, opariek eta aurrekuarekin jasoko dute aitortza.

Amaitzeko, azokan lanean aritu direnek bazkaria egingo dute frontoian, 14:30ean.

## Dorleta Santutegia, Euskal Ondarearen zerrendan

Dorletako Santutegia monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedienteari eta espedientearen jendakuntzarako eta interesdunentzako aldiari hasiera eman dio Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondare Sailak.

Eraikinak duen kultura-interesa aztertuz, eta Kultura

Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkeztutako ebazpen-proposamenari jarraituz, espedienteari hasiera eman diote.

Bailara defendatzen zuen gatzeluaren hondarren gainean dago santutegia, gatz-iturburu babesteko eraiki zena. Gaur egun, XVII. mendeko itxura du; hala eta guztiz, Erdi Arokoak diren erliebeak gordetzen ditu. Urteetako aldaketen ondorioz, estilo ezberdinen nahasketak bat da.



# "Gabonetan irekiko dugu Seminarioko aretoa"

Obrak atzeratu badira ere, Letek dio urtea amaitu aurretik zabalduko dela Seminarioko aretoa; bestalde, 2019rako, Arrizuriagan kultura ekipamendu bat jartzeko "pausoak" emango dira eta Boluko frontoia estaltzeko lanak otsailerako egongo dira hasita

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Errege Seminarioko aretoa, Larraemendi industrialdea eta Agorroso zein Labegaraietako kirolguneak izan zituen hizpide, besteak beste, Elena Letek Goiena telebistako *Harira* saioan.

Errege Seminarioko aretoko obrak aurreikusi baino gehiago atzeratu dira, eta Letek eman du lanon amaierarako data berri bat: "Gabonetan irekiko dugu Errege Seminarioko aretoa. Askotan esan izan dut *encaje de bolillos* bat behar duen obra bat dela. Bestalde, 2015ean Gobernura iritsi ginenean obra zibilaren proiektua genuen, besterik ez. Finantziatorako lanketarik ez, ekipamendua zehazteko proiekturik ez... Egoera horri aurre egin diogu; 1.107.000 euroko finantziazioa lortu dugu Aldundiarekin eta horrekin ekipamendua ordaindu dugu. Aurrerapauso handia izan da".

Areto horretarako egitaraua zehazteko lanean dihardutela eta kudeaketa Udalaren esku egongo dela gaineratu zuen alkatea. Seminarioko aretoa zinema areto moduan erabiltzerik egongo den galdetuta, "kostu handia" duela dio: "Orain ez dugu gaitasunik kostu horri aurre egiteko, baina ez dugu behar hori ahaztu. Azpiegitura guztia eginda dago edozein unetan zinema areto moduan ere funtziona dezan; horretarako kanpoko finantziazioa bilatzen ari gara".

**Labegaraieta, Bolua eta Agorrosin** Labegaraietako kiroldegia eraberritzeko Diputazioak ia 600.000 euroko diru laguntza emango dio Udalari lanak 2019an eta 2020an gauzatzeko. Laguntza hori jaso izana lorpenatzat dauka Letek: "Urrats asko egin dira Labegaraietan. Ikusten genuen behar ezberdinak bete behar zirela: auzotarren nahia, aisialdirako gunea eta kirola. Hori guztia aintzat hartuta egin genuen plan



Elena Lete, Goiena telebistako platoon, atzo. JOKIN BEREZIARTUA

## GOBERNUAK KULTURA ARLOKO EKIPAMENDU BAT EGOKITUKO DU ARRIZURIAGAKO ERAIKINEAN

zuzendaria eta horren barruan kiroldegirako aurreproiektua; auzotarrek alde aurretik eskatzen zuten gunea bat izango dute kiroldegian bertan". Kirol ekipamenduekin jarraituz, Boluko frontoia estaltzeko obrak urtarrean hasteko moduan egotea espero dute; oposizioak irmoki salatu badu ere, galdeketaren prozesuarekin oso pozik dago alkatea: "Partaidetza sustatzea, entzule aktiboak izatea eta bizikidetzak ez urratzea dira gure lanerako oinarriak eta horiek gauzatu egin ditugu Boluko frontoien estalkiaren proiektuarekin". Estalkia egiteko lanak otsailerako hasita egotea espero dute. Agorrosin Kirol Guneari dagokionez, bestalde, herritar batek galdetzen zuen ea kirolguneari erantzun integral bat emateko proiekturik baduen Udalak, "petatxuak" jartzen ibili beha-

rrean. Kanpoko igerilekuaren esparruak aldaketarako margen gutxi eskaintzen duela-eta, Letek gogora ekarri du konpromisoa hartuta duela Gobernua datorren urterako bainurako beste alternatiba batzuk aztertzeke. Futbol zelaiarekin, Bergara Kirol Elkartearen lan teknikoa "oso ona" izan dela esateaz gain, Letek aurreratu du herriaren ikuspegitik landu beharreko "hainbat gai" daudela: "Horixe izango da guk landu beharrekoa".

Bestalde, Letek ez du Larraemendi industrialdea Eibarren Kirol Hiria egiteko aukera moduan ikusten: "Eibarrek presidente berria duenetik ez dugu ezer entzun; Sprik inbertsio garrantzitsu bat egin du Larraemendi industrialde bat izateko, hortik aldentzea zaila da".

**Kultura ekipamendua Arrizuriagan** Amaitzeko, Arrizuriagan kultura ekipamendu bat egokituko da: "Partida bat badugu aurrekontuan jasota. Agintaldi honetan urratsak emango ditu bertan kultura ekipamendu bat jartzeko, eta eraikinaz harago, parkea hasi gara kultura ekitaldiarako erabiltzen. Bide horretatik jarraituko dugu".

## Konpondu dute Goi Auzoko bihurtunea, San Martzial bidean

Elizak 3.381 metro koadroko lurren doaneko lagapena egin dio Udalari; lanek 20.040 euroko kostua izan dute

**J.B. BERGARA**

San Martzialera bidean dagoen Goi Auzoko bihurtune arrisku-tsua konpondu berri du Udalak. Azaldu dutenez, "aspaldiko eskaera" zen errepide zati hori hobetzea, zirkulazioarekin lotuta arrisku egoerak ekiditeko. Horren harira, Udala akordio batera heldu da Elizarekin, eta akordio horri esker Elizak 3.381 metro koadroko lurren doaneko lagapena egin dio Udalari. Eta Udalak lagatako lur hori baliatuta, bideko bihurtunea zabaldu ahal izan du, eta puntu horri

zegokion arriskua ezabatu. "Albiste pozgarria da auzotarrentzat eta bide hori erabili dezakeen herritar ororentzat", adierazi dute. Lanok Elurlan SL enpresari esleitu zitzaizkion irailaren 4an eta 29.040 euroko kostua izan dute -BEZa barne-. Hitzarmen horren baitan, Udalak konpromisoa hartu du urte amaiera aurretik Santa Marinako elizaren erabilera publikoko portikoko harlauzen juntak hartzeko lanak egiteko eta Santa Marina parrokiaren ager daitezkeen pintaketa ezberdinen garbiketara egiteko.

## Organo erromantikoaren zikloak, beste bi emanaldi Bergaran

Urriaren 7ko kontzertu arrakastatsuen ostean, hilaren 14an eta 21ean saio bana izango dira Santa Marina elizan

**J.B. BERGARA**

Organo Erromantikoaren Nazioarteko zikloaren 18. edizioaren barruan, beste bi emanaldi izango dira Bergaran. Zapatuan, urriak 14, bi zati izango dituen kontzertua izango da; lehen zatian Bernhard Marx organo-jotzaile ezagunak joko du eta bigarrenean, berriz, Gorka Zabalearen txistuaz, Jose Javier Leraren perkusioaz eta Fernando Gonzaloren organoaz gozatzeko aukera egongo da. Bergarako bigarren emanaldia, berriz, urriaren 21ean izango da; Ainhua

Zubillaga mezoak eta Loreto Fernandez organo-jotzaileak hartuko dute parte. Bi emanaldi horiek Santa Marina elizan izango dira, 20:00etan. Bergarako saioez gain, Azkoitia eta Azpeitia ere hartu ditu zikloak.

Urriaren 7an izan zen Bergarako lehen kontzertua; Aitor Olea organoan eta haren musikari laguntzen, Aitor Biain oñatiarrak zuzentzen duen Bergarako Orfeoiaren ahotsa. "Amaieran esan digutenez, entzuleak oso gustura geratu dira kontzertuak. Oso pozik gaude".

## Urriaren 17an jarriko dira salgai moda desfileko sarrerak

Urriaren 21ean frontoian (22:00) egingo den moda desfileko sarrerak urriaren 17an jarriko dira salgai, bost eurotan. Bi modu daude eskuratzeko: Internetez, [Ticket.kutxabank.es](http://Ticket.kutxabank.es) plataforman, edo udaletxeko sarreran, 18:00etatik 20:00etara. Elbarriek telefonoz erreserbatu ahalgo dituzte sarrerak aurrez, 943 77 91 59 telefono zenbakira deituta.

## OHARRAK

### 1944an jaiotakoak

Azaroaren 11n Sirimiri jatetxean bazkalduko dute (14:30). Izena emateko 943 76 58 67 edo 943 76 50 22 telefono zenbakietara deitu behar da azaroaren 6a baino lehen.

### 1967an jaiotakoak

Azaroaren 11n Tartufon bazkalduko dute. Urriaren 27a baino lehen eman izena: ES02 3035 0009 110091151458 (70 euro).





Irudi nagusian, herritarrak zabor bila Lasa jatetxearen ondoan; irudi txikian, berriz, ortu bateko zikinkeria. IMANOL SORIANO

## Deba ibaia geroago eta garbiago doa Bergaratik

Erreka Egunean 200 herritar inguruk hartu dute parte, eta, orokorrean "oso ondo" joan bada ere, urtero errepikatzen diren gune batzuetako zikinkeriarekin oso haserre daude antolatzaileak; Labegarieta inguruko ortu partikularrak dira adibide garbiena

### Jokin Bereziartua BERGARA

Ume eta heldu, 200 bergarar inguruk hartu zuten parte, auzolanean, zapatuko Deba ibaiaren garbiketean. 2013an egin zuten lehenengoz garbiketa herri ekimenez, eta aurten ere 200 herritar inguruk hartu zuten parte. "Norbanakoak etorri dira, baina baita ikastetxeetako taldeak ere, Auzokokoak, Gazte Asanblada-koak, Beti Bustikoak, Helduen Eskolakoak...", adierazi du Erreka Garbiketarako Batzordeko koordinatzaile Ariane Kareagak.

### Urteroko ekintza askorendako

Egurra, errepideetako hesiak, plastikoa, hobiak... horiek guztiak eta gehiago batu zituzten. Taldeetan banatuta, Deba ibaiak Bergaran egiten duen ibilbidean zehar ibili ziren lanean. Oraindik ere ibaiaren zati batzuetan zikinkeria pilatzen den arren, erreka bazterrak geroago eta garbiago zeudela aipatu zuten parte-hartzaileek, baita Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lan-

der Arregik ere: "Taldea guztiak gauza bera esan dute. Igartzen da aurreko urteetan lan egin dela, baita jendea kontzientziatua dagoela ere". Horren seinale da ibaian animalia gehiago dagoela, Jose Mari Anduaga herritarrak azaldu zuen moduan: "Arrain gehiago ikusi ditugu, karramarroak ere bai...". Errege Seminarioan eta Labegarietan jarritako edukiontzietan pilatu ostean, mokadutxoak egiteko aukera ere egon zen.

Bergaran urtero egiten da erreka garbiketa, eta arrakasta handiarekin, gainera. "Jendeak badu buruan urrian badagoela zapatu goiz bat errekarra jaitzi eta garbitzeko. Antzeko norba-

### PARTE HARTZAILEEN ARABERA, ZABOR GUTXIAGO ETA ANIMALIA GEHIAGO DAGO URTEZ URTE

nakoak eta kolektiboak elkartzen gara urtero", dio Kareagak.

### Ortu partikularrekin haserre

Orokorrean garbiketa "oso ondo" joan bazen ere, bereziki Labegarietan aritu zirenetako batzuek oso haserre bukatu zuten erreka alboko ortu partikularrekin. "Badira puntu batzuk urtero errepikatzen direnak. Puntu larriena Lasa jatetxeko zubitik saihesbidera irteteko doan bidearen eta erreka artekoa da; ortu batzuk daude eta bereziki horietako baten ondoan aurkitutakoa sekulakoa izan zen; hildako untzien narruak aurkitu ziren, besteak beste".

Kasu hori salatuko du Erreka Garbiketarako Batzordeak: "Animaliaren kasua udaltzainei erakutsi genien, ikerketa abiatu dezaten. Halako kasuak salatu egin behar dira". Salagarriak diren beste jarrera batzuk ere topatu zituzten ibilbidean zehar, baina horiek "beste lanketa bat" behar dutela uste dute.

## Mendi ganadu feria egingo dute bihar Elosuan

Bertako produktuen azoka, bertsolariak, trikitilariak eta umeendako puzgarriak izango dira, besteak beste

### J.B. BERGARA

Elur Txiki elkartearen eskutik eta Bergarako eta Azkoitiko udalen zein Elurmendi elkartearen laguntzarekin, badator Elosuko mendi ganadu feriarenean 39. aldia. Ganaduaz gain, askotariko bertako produktuez osatutako azoka ere egongo da. Eta ez hori bakarrik, auzoan bertan egindako txondorretik eratorritako ikatzarekin erretako Elosuko txahala dastatzeko aukera ere egongo da eta aurten. Izan ere, txondorren tradizioa berreskuratu dute zenbait auzotarrak eta bi txondor eraikitzea lortu dute, garai batean egiten zen erara. Hain zuzen, bi txondor horietako azkenetik ateratako ikatzarekin erreko dute txahala bihar.

Honako hau izango da egitaraua: umeendako puzgarriak 11:00etatik 14:00etara; Julio Sotorekin eta Iban Urdangarinekin bertso saioak frontoian 12:30ean eta 16:00etan; Laja II.a eta Lutxurdio trikitilariak 12:30ean; eta asto proba 17:30ean. Jaiak bukatzeko, Laja II.a eta Lutxurdio trikitilarien erromeria egongo da. Autobus zerbitzua egongo da egun osoan, Bergaran-Burdinaten eta Azkoitian-Eroski txikian, K5-n eta Altxibartxon-.

### 'Alizia Musikala'-rako 1.600 sarrerak salgai daude dagoeneko

Salgai daude, astelehena ezker, azaroaren 11n eta 12an Udal Pilotalekuan (18:30) ikusi ahalko den *Alizia Musikala* obrarako sarrerak, 16-13 euro bitarteko prezioan. Bi modu daude sarre-erosteko: [www.ticket.kutxabank.es](http://www.ticket.kutxabank.es) webgunean edo Musika Eskolan jarriko duten leihatilan- eskolakoak dagoeneko saldu ez badira-, 17:30etik 20:00etara.



NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR

## Zinespenak

Zinemaldia eta Kultura Kaleraren bixamenez gure herriko plazara begira jarri naiz. Badira hamabi urte *Bergara, zinemarik gabeko herria* izendatu genuela. Azken hamarkadan erabilera anitzeko aretoaren hainbat parte hartze prozesu eta bilera izan ditugu, eta bertan zinema duin baten premia aritu gara askotan. Udaletik udalera, teknikitik teknikora eta herritarretik herritarera, proiektuak aldatu, luzatu eta lausotu dira. Aspaldi irekita izan behar genuen zinema aretoaren pista galduta izatera heldu arte.

Azken hilabeteetan kalean hainbat zurrumurru entzun ditut zinemaren proiektuaren egoeraz. Proiektua aldatu omen da eta prozesuan bidelagun izan ginenok ez dugu inolako berri-rik. Kultura baliabideen eta ondareen kudeaketa gardenik gabe kulturak ez du zentzurik.

Udalera informazio edo hitzordu eske idatzi nuen orain bi aste, erantzunik ez. Hemen doa galdera bera: proiektuan zehaztuta zegoen bezala, zinema zirkuituan egoteko beharrezkoak diren baliabide teknologikoez hornitutako instalazioak izango ditugu areto berrian? Nola osatuko da aretoaren programazio kudeaketa? Galdera zehatzago baten barnebildu ditzakegu: non eta noiz ikusiko dugu *Handia* gure herrian?

### Usoa Mendikuteran artelanak ikusgai azaro erdialdera arte

Usoa Mendikute bergararrak hamahiru koadroz osatutako erakusketa jarri du Hamaika tabernan. Azaro erdialdera arte bisitatu ahalko da, martitzene- tik domekara, 13:00etatik aurre- ra. "Kolore biziak zein planoak erabiltzen ditut eta ikusleak irudi bakoitzari ematen dion interpretazioan oinarritzen da artelana", adierazi du egileak.





Galartzako dorretxea, behe-lainoan, Murutik erretratuta. IKER AIZKORBE

## Ezezaguna denaren edertasuna azaleratuz

Iker Aizkorbe argazkilariaren erretratua izan daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an kaleratuko duen egutegiko azala; Gipuzkoako txoko ezberdinen erretratuak ikusi eta gustukoena bozkatzeko aukera dute herritarrek: 'Facebook/OrainGipuzkoa'

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Aretxabaletako Galartza auzoko dorretxea inguratzen duen egun-senti eder hori da Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan duen lehiaketarako Iker Aizkorbe argazkilariak aurkeztu duen erretratua. "Sare sozialen bitartez jakin nuen Foru Aldundiak martxan zuen argazki lehiaketa. Gipuzkoako paisaia edo txoko baten erretratua aurkeztea zen baldintza. Eta neuk, aurrez aterata, lehiaketara aurkezteko argazki aproposa baneukan", kontatu du Iker Aizkorbek. Antzuolan bizi den argazkilari aretxabaletarrak, baina, Gipuzkoa mailan horren ezezaguna ez

den txoko baten aldeko apustua egin duela azaldu du: "Gipuzkoa mailan, oso ezezaguna eta esanguratsua da Donostiako Kontxako baranda, esaterako; baina nik ezezagunaren aldeko apustua egin gura izan dut. Gipuzkoa barrualdeko txoko ederrak erakustekoarena, alegia. Horregatik, Aretxabaletako Galartza auzoko dorretxearen erretratu hori aurkeztea erabaki dut".

Aldundiak aurkeztu diren argazki guztietatik 40 aukeratu ditu eta sare sozialetan jarrita daude gustukoaren aldeko botoa emateko. Hala, urriaren 15era arte erretratuak GFaren Facebookeko orrian bozkatu eta

ikusi daitezke *-Facebook.com/OrainGipuzkoa-*; baita, oraingoz, boto ugari jaso dituen Iker Aizkorberen *Zeruetako erreinua* argazkia: <https://labur.eus/iker>. Hala, argazki irabazlea Aldundiko 2018ko egutegiko azala izango da.

### Argazkiaren bila

Aizkorbek azaldu du argitasun berezi hori duen argazkia ateratzeko ezinbesteko dela zenbait kondizio elkarrekin gertatzea: "Argazkia goizean goiz -06:00etan- aterata dago Muru gainetik. Negua da, gainera, eta arbolak historik gabe daude, paisaia bistaritzen da. Behe-lainoa ere

## "Argazkilaria naizenetik, natura sakonago begiratzen dut"

IKER AIZKORBE ARGAZKILARIA

Une bat duen bakoitzean argazki kamera esku artean hartzen duela dio Aizkorbek. Zaletasuna eta pasioa transmititzeko, baina, herritarrei 4-5 saioko ikastarotxoak eskaintzera animatu da.

### Zure begiek zer ikusten dute?

Argazkilari naizenetik, paisaia bat egunetik egunera nola aldatzen den hasi naiz ohartzen. Ikusteko beste modu bat da; natura sakonago begiratzen dut. Urteko sasoei gehiago erreparatzen diet.

### Zein argazki duzu orain buruan?

Sasoi bat lehenago hasten naiz antolatzen. Udazkena oso polita eta koloretsua da argazkiak ateratzeko eta dagoeneko Kantabriako basoetara joateko plana eginda daukat.



MAIDAR ARREGI

### Ikastaroak emango dituzu.

Sekulako argazki kamerak ikusten dira; ondo ordaindutako reflex kamerak. Baina kamerari buruzko ezagutzarik ez dago; atera ahal zaien zukua zein den ere ez. Eskaintzen duten aukera guztiak azaltzen saiatuko naiz ikastaroetan. 4-5 saio izango dira -jendearen zalantzen arabera-. Urriaren 20an hasiko gara eta interesa dutenek urriaren 15era arte dute izena emateko aukera Xinkonan.

egon behar da. Nire argazki kuttunenetako bat da".

Asteburuan, gainera, eguraldi kondizio bikainak aprobetxatu dituela azaldu du: "Behe-laino zoragarria izan da asteburuan eta berriro ere Galartzara joan naiz erretratuak ateratzera".

### Lagun taldea

Antzuolan bada argazkilaritza maite dutenen lagun taldea. Astelehenetan batzen dira -Olaranen, 18:30ean-, eta esperientziak konpartitzen dituzte: "Ez gara

talde ofizial bat, baina guztiok daukaguna da argazkilaritzarekiko zaletasuna. Bederatzi lagun inguru batzen gara eta dakiguna konpartitzeko eta irteerak antolatzeke batzen gara. Izan ere, Antzuolan urtean zehar bi argazki lehiaketa egiten dira eta jendeak gustuko duela argazkilaritza ohartu ginen. Eta horrelaxe, Udalarri lokal proposamena egin eta batzartzeko gela bat lortu genuen. Eta noski, gura duenak atea zabalik ditu Olarango lokalean", kontatu du.

## Arrillagaren lanak ikusgai

Konposizioak, collageak, koloreak, irudiak... Antton Arrillaga Bergarako margolariaren erakusketa ikusgai dago Aitz Garbi tabernan. Erakusketa koloretsua urria osoan zehar izango da ikusgai. "Formak apurtzen, kentzen, ipintzen... itxura desitxuratzen. Jolasean, amets-giro batean sartzen", azaldu du.



AITZ GARBÍ

## Elektrizitate kontsumoa eta produktuen etiketa ulertu guran

Landaxope erretiratuen elkarteak bi tailer antolatu ditu, fakturak eta etiketen esanahia ulertzen ikasteko

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Bi tailer praktikoko antolatu ditu Landaxopek herritarrendako: alde batetik, produktuen etiketak nola ulertu ikasteko tailerra egingo da astelehenean, urriak 16, arratsaldeko seietan, Olaran

etxean. Kontsumobideren esku-tik gidatuko da. Kontsumobide kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko erakunde autonomoa da. Eta erakundeak argi dio produktu guztiei jarri behar zaiela etike-

taren bat: "Produktuei etiketak jartzea nahitaezkoa da, kontsumitzaileen oinarriko bi esku-bideak betez: informazio-esku-bidea eta segurtasun-esku-bidea. Etiketa da produktuei eta haien fabrikatzaileei buruzko informazio objektiboena".

Beste tailer praktikoko bat ere antolatu dute datorren astera begira: Kontsumobideren esku-tik, elektrizitate eta gas kontsumoaren gaineko tailerra izango da, 18:30ean, Olaranen, urriaren 18an, eguna.



# Urratsez urrats memoria historikoa argitara

Kontzentrazio-esparru batean kendu zioten ordularia Pascual Askasibar elgetarrari. Berreskuratu eta dohaintzan eman dute, orain, ondorengoek. Pablo Beldarrainen liburuaren argitaratze berria eta antzetzutako bisita gidatua ere izan dira egunotan

**Larraitz Zeberio** ELGETA

72 urtetik gora izan da Alemaniako biltegi batean holokaustoko biktima elgetar Pascual Askasibarren poltsikoko ordularia. Berreskuratu eta dohaintzan eman dute haren ondorengoek. Ordularia ikusgai dago Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan. Barikuan egin zuten emate-ekitaldia Elgetan. Horrekin batera, Askasibarren omenez Mendizaleen Plazan dagoen oroitarria inauguratu zuten. Elgetatik abiatutako ikerketa baten ondorioz izan zuten Askasibarren ondorengoek arbasoen berri. Aurretik ez zuten haien berririk. "Aukeran nahiago izango genuen bizitza erabat zoriontsua izan zutela jakin izan bagenu, baina guztiz alderantziz gertatu da", adierazi dute.

**25 lagun bisita gidatuan**

Memoria Jardunaldiak lotuta domekan antzetzutako bisita gidatua egin zuten herrian. 25 bat lagunek hartu zuten parte, eta antzele talde baten laguntzarekin erizaintza postu bat, frankisten posizio bat, La Belga ingurua eta milizianoen defentsa lerroa ezagutu zituzten, besteak beste. Antolatzaileak pozik agertu dira emaitzarekin.

**Beldarrainen liburua salgai**

Berriz ere eskuragarri dago Pablo Beldarrainen *Historia crítica de la guerra en Euskadi 1936-1937* liburua. Jardunaldien barruan egin dute Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideek bigarren argitalpenaren aurkezpena. Gogora Institutuaren laguntzarekin 500 liburu atera dituzte. 1936ko gerran EAJko Martiartu batailoiko komandantea izan zen Beldarrain. Elgetan egindako aurkezpenean izan ziren, besteak beste, haren alargun Mari Carmen Amuriza zein Maialen eta Ane alabak.



Askasibarren ondorengoak eta udal ordezkariak ordulariaren emate ekitaldian. L.Z.



Domekako bisitariak Ozkarbipean kokatutako gerrako erizaintza postuan. M. ARREGI



Beldarrainen senitartekoak liburuaren argitaratze berria aurkezten, Elgetan. L.Z.

## Izen-emate txikia zaintza eta ludoteka zerbitzuetan

Hezitzaileak aurrera dihardu egitarauarekin eta Gaztematikako saioetan parte hartzen hasi da

**L.Z. ELGETA**

Urri hasieran bi erabiltzaile ditu ludoteka zerbitzuak eta bat bera ere ez zaintza zerbitzuak. Eskaintza 2-14 urte bitarteko umeendako da eta, egungo erabiltzaile kopurua txikia izanda ere, Kepa de Vega hezitzailea aurreikusitako plangintza burutzen ari da. Jolas librea, ipuinak, jolas kooperatiboak, jolas motorrak... dituzte zerbitzuan, eta horrekin batera munduko kulturak lantzeko egitasmo bat dute martxan. Urrian maorien kultura ari dira lantzen eta ikasturtean zehar

beste hainbat kultura jorratuko dituzte. Munduko mapa handi batean kokatuko dituzte guztiak. "Bakoitzeko marrazki bilduma bat, eskulan tailer bat eta musika edo bideo saioak egingo ditugu", azaldu du De Vegak. Hezitzailea, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika sareko saioetan parte hartzen ari da. Dauden baliabideak aztertzeko eta sortzen diren beharrei erantzuna emateko sarea da. Antzerako tamaina duten herriekin esperientziak trukatzeko ere baliagarria da.



L.Z.

## Konpostagailu egokiagoak

Domingo Iturbe kaleko konpost-gunean garbiketa eta berrantolaketa lanak egin ditu Udalak. Horrekin batera, edukiera handiagoko konpostagailuak ipini dituzte. Euri urik ez sartzeko eta lixibatzailek ez irteteko edukiontzi egokiagoak direla adierazi dute udal arduradunek.

## OHARRAK

### Auzolanerako deia

Urriaren 12an Egoarbitzako udal lursailak garbitzeko deia. 08:30ean, plazan.

### Kantu bazkaria

Urriaren 14an El Rincon de Lola tabernan.

### Erretiratuen

Gernikako azokara joateko izen-emate gaur, hilak 11, 11:00etan, Ozkarbi elkartearen.

### Arreta-ordu kopuru bera berriz ere Elgetako kontsultan

Astelehena ezker, arreta-ordu kopuru berera itzuli dira Elgetako kontsultan. Herritarrak erreklamazio-orriak betetzen hasi ziren. Orduetegi aldaketa zerbitzua berrantolatu artean egon den egoera izan dela adierazi dute Debagoieneko arduradunek. Elena Larramendi sendagilea irailaren 18an hasi zen Elgetako kontsultan.





Hondakinen tasa bi euro igoko da eta familia bakoitzak 113 euro ordainduko du zerga hori 2018an. OIHANA ELORTZA

## Zerga gehienak %1,5 igoko dira urtarrilean

Olaburun egoitza duten jarduera berriek %100eko hobaria izango dute aktibitatean alta emateagatik ordaindu beharreko tasan. Ibilgailu elektrikoek %95eko hobaria izango dute eta hibridoek, %75ekoa. Zaborra, berriz, bi euro gehiago ordainduko da

### Amaitz Txintxurreta OÑATI

Aho batez onartu ditu udalbatzak Oñatiko 2018ko ordenantza fiskalak. Zerga eta tasa gehienek KPIk markatzen duen %1,5eko igoera izango dute. "Lau kapitulu ditu zerga ordenantzak eta irizpide orokorra izan da igoera hori aplikatzea", argitu du Mikel Biain alkatea. EAJko zinegotziek ere aldeko botoa eman dute. "Aho batez onartu ditugu, guk egindako proposamen guztiak onartu dituelako Udal Gobernuak", azaldu du Lourdes Idoiaga bozeramaileak.

Jeltzaleen proposamenetako bat izan da zaborraren tasa bi euro igotzea. Osoko bilkuran udal ordezkariak emandako datuen arabera, egun Mankomunitateko kostua familiako 131 euro da urteko. EH Bilduk proposatu zuen 111 euro kobratzea familia bakoitzari, eta EAJK adierazi zuen nahiago zuela igoera poliki egitea. "Igoera bortitzak egin orde, proposatu dugu urtero %2 igoaz ematea estal-

dura. Ez daukagu dirua kobratzeko interesik, baina ez duguna gura da lau urte barru %10eko igoera egotea. Iruditzen zaigu hobe dela poliki ordaintzea dena batera baino", argitu zuen Idoiagak. Beraz, proposatu zuten urtean bi euro inguru gehiago ordaintzea, hau da, 113 euro, eta proposamen hori onartu zuen Udal Gobernuak.

### Hobariak

Irizpide orokorretik aparte, berritasun batzuk ere onartu zituen udalbatzak. Horien artean dago, esaterako, ibilgailu elektriko eta hibridoek trakzio mekanikoko zergetan hobariak izango direla; %75eko hobaria hibri-

**IGOERA HORI IZAN DA IRIZPIDE OROKORRA ETA AHO BATEZ ONARTU DUTE ALDERDI BIEK**

doetan eta %95ekoa elektrikoetan, hain zuzen.

Enplegu alorrari dagokionez, jarduera berri bat zabaltzean ordaintzen den lizentzia edo tasa horretan %40ko hobaria aplikatuko da. Eta Olaburun dabilzan ekintzaileek ere izango dute hobaria. "Olaburun dauden jarduera berriak, euren izaera ekintzaile hori kontuan izanik, orain arte ez dira aktibitateetan zerga edo ordenantza mailan alta eman izan. Hemendik aurrera, alta emango dira aktibitate guztietan, Udalak ere kontrol bat eraman dezan, baina %100eko hobaria izango dute Olaburuko zentroan alta ematen diren jarduera berri horiek", azaldu zuen alkatea.

Bestalde, diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzen zutenek gutxiago ordaintzen zuten ondasun higiezinaren gaineko zergan. Orain, baina, horiek kendu egingo dituzte ordenantzetatik eta diru laguntza bihurtuko dituzte.

## Komunikazioa lantzeko tresnak ezagut ditzakete elkarteek

Irabazi asmorik gabeko herriko elkarteendako formazio saioak antolatu ditu Oñatiko Udalak, bigarrenaz

### Oihana Elortza OÑATI

Komunikazioaren inguruko formazio ikastaro bi antolatu ditu Udalak herriko elkarteendako. "Joan den urtean egin genuen lehenengoa eta esperientzia on-tzat baloratu zuten. Komunikazioaren gaia behin baino gehiagotan agertu zen modu orokorrean, eta horregatik erabaki dugu aurten gai horren inguruko saioak antolatzea. Talde eta elkarte asko daude herrian, indartsu dihardute, eta ulertzen dugu Udalak modu honetan ere lagundu behar diela", azaldu du Partaidetzako batzordeburuak, Nerea Zubiak.

Lehen ikastaroa, zortzi ordukoa, urriaren 27an eta 28an izango da eta proiektuak garatzeko eta plazaratzeko gaitasunak landuko dituzte. Bigarrena bederatzi ordukoa izango da eta taldeek elkarren artean lan

egiteko dauden tresna eragin-korrek azalduko dituzte, besteak beste. Azaroaren 21ean, 23an eta 28an izango dira saio horiek. Ikastaroek alde teorikoa eta praktikoa izango dute eta taldeen kezka eta zalantzak argitzera bideratuko dira.

### Izen-ematea

Saioetan parte hartzeko, derri-gorrezkoa da izena ematea, plazak mugatuak dira eta. Dagoeneko zabalik dago. Talde bakoitzeko bi lagunek eman dezakete izena, gehienez, ikastaro bakoitzean, eta plazak izen-ematearen hurrenkeran beteko dira. Tokiak baino eskaera gehiago egonez gero, itzarote-zerrenda osatuko da. Izena emateko bideak bi dira: udaletxeko harrerara joatea da bat eta helbide honetara mezua bidaltzea da bestea: [partaidetza@onati.eus](mailto:partaidetza@onati.eus).

## Goiena telebistako 'Harira' saioan izango da Mikel Biain alkatea

Bueltan da Goiena telebistako *Harira* saioa eta Oñatiko alkate Mikel Biain izango da urriaren 17ko gonbidatua. Galderarik egin gura izanez gero, hauexek dira dagoeneko zabalik dauden bideak: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbide elektronikoa eta 688 69 00 07 zenbakia Whatsapp edo Telegram bidez bidaltzeko. Urriaren 16an bukatzen da epea.

## Zaintza lanetan dihardutenendako ikastaroa egongo da

Menpekotasuna duten pertsona batekin bizi diren familiei laguntzeko den Sendian programaren bidez, zaintzaileei zuzendutako ikastaroa antolatu du gizarte zerbitzuen udal departamentuak. Bi orduko sei saio izango dira: urriaren 18 eta 24an eta azaroaren 2an, 7an, 22an eta 24an. Izena eman behar da aurrez 943 03 77 00 zenbakian.

## Eztabako kartzelako historia kontatuko du Pla ikerlariak Oñatin

*La memoria en una botella* izenburua duen hitzaldia egingo du Koldo Pla ikerlariak Oñatin urriaren 20an. Iruñeko Ezkaba mendiko San Kristobal gotorlekuan egon zen kartzela frankistaren historia argitu eta memoria berreskuratzeko lanean ari den Txinparta elkarteak kidea da Pla. Hitzaldia kultura etxean izango da, 19:00etan.

## Ezohiko ordutegia izango dute bihar hainbat zerbitzuek

Bihar, eguena, ezohiko ordutegiak izango dituzte Udaleko hainbat zerbitzuek. Udaletxea, gizarte zerbitzuak eta kultura etxea, esaterako, itxita egongo dira. Kiroldegiak, berriz, jaiegunitateko ordutegia izango du: 09:00etatik 13:30era. Arantzazu eta Oñati arteko autobus zerbitzua martxan egongo da, jaiegunitate bezala.





Iñigo Perez eta Ibon Perez pilotariak. MIREIA BIKUÑA

# Ibon Perez eta Iñigo Perez, onenen artean

San Migel Pilota Txapelketako finalean izan dira 16 urteko bi pilotari oñatiarrak. Elkarren aurka jokatu dute finala eta Ibon Perez eta haren bikotekidea dira txapeldunak. Biek ala biek txapelketa ederra izan dela uste dute

## Miren Arregi OÑATI

Pilota final polita jokatu zuten Herri Egunean San Migel Pilota Txapelketaren baitan bi oñatiarrek, elkarren kontra. Kade-teen finalera iritsi ziren Iñigo Perez eta Ibon Perez eta lehia politaren protagonista izan ziren biak ala biak. Elkarren aurka egin zuten. Talde baten, Ibon Perez eta Kuarain nafarra; bestean, Iñigo Perez oñatiarra eta Azpeitiko Alberdi. 22-14 irabazi zuten Ibon Perez eta Kuarain bikoteak osatutako taldeak.

## Final polita

Lan txukuna egin zuen finalean bikote irabazleak. Ibon Perez oñatiarrak "gustura" jokatu zuen eta "bikotekideak ere lan ona" egin zuen. "Zortea ere izan genuen, aurkaria nekatuta iritsi baitzen finalera", dio Ibon Perezek. Txapeldunorde Iñigo Perezek gehitu du ez zela bere partidu onena izan: "Urduria naiz, eta, finala Oñatin izanda, are urduriago ipini nintzen. Ez nuen

nire onena eman eta ez nion aurrelariari bere partidu onena egiten utzi". Hala ere, pozik dago txapelketan egindako lanarekin. Izan ere, maila oso handiko txapelketa izan da hasieratik aurtengoa. "Horregatik, hasieran ez nuen txapela irabazteko aukera handirik ikusten", dio Ibon Perezek, bikote irabazleko oñatiarrak. "Lan eginda lortu dugu", erantsi du.

## Aloña Mendiren lan ona

Kadete mailako finalean bi oñatiar egoteak balioan ipini du Aloña Mendiko pilota saila egiten ari den lana. Txapelketan aurten egin diren berrikuntzek, bestetik, Oñatiko pilotariei kanpoko pilotariekin jokatzeko au-

## BI OÑATIAR FINALEAN EGOTEAK ALOÑA MENDIKO PILOTA SAILAREN LANA BALIOAN IPINI DU

kera eman diete eta pozik dau- de bi pilotariak aukera hori eduki izanarekin. "Aukera ona da, normalean jokatzeko aukerarik ez duzun jokalariek eza- gutzeko aukera eman baitigu", dio txapeldunorde Iñigo Perezek. Bestetik, zailtasunak ere badi- tuela aitortu dute: "Zure bikote- kidea ezagutzen ez duzunean, hasieran ez da erraza egiten. Partidu aurretik berba egin behar izaten da, ez delako norbere betiko bikotekidea", dio Ibon Perezek. "Baina azkenerako el- kar ulertu dugu", gaineratu du. Iñigo Perezek, bestalde, bikotea egitea kosta egin zitzaizela aitortu du. "Biok gara oso lotsatiak eta hasieran asko kostatu zitzaigun. Finalaurrekoetan nabaritu nuen aldaketa eta pozik iritsi ginen bukaerara".

Txiki-txikitan ekin zioten biek ala biek pilotan jokatzeari eta orain, 16 urterekin, San Migel txapelketako finala jokatu dute. Etorkizunean pilotari gisa ga- ratzen segi gura dutela diote.

## Mendia eta Natura Argazki Lehiaketa bueltan da

Aloña Mendi mendiko sailak lehiaketa antolatzen duen hamalaugarren aldia da aurtengoa

### M.A OÑATI

Urriaren 22a da Oñatiko XIV. Mendia eta Natura Argazki Lehiaketara argazkiak aurkez- teko azken eguna. Urtero beza- la, argazkilari guztiendako dago zabalik deialdia eta bi sail izan- go ditu. *A saila: Gizakia mendian* izena du lehenak eta *B saila: Mendi ingurunea* bigarrenak. A sailean lehiatuko dira mendi ingurunean gizakiak egindako ekintzak azaltzen dituzten ar- gazkiak; alegia, alpinismoa, mendi-zeharkaldiak, trekkingak, eskalada, BTT... Ez dira onar- tuko lehiaketetako argazkiak. B sailean, berriz, mendi ingu- runeko argazkiak aurkeztuko dira, hala nola paisaiak, mendiak, flora, fauna...

Argazkilari bakoitzak, gehie- nez ere, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu sail bakoitzean eta ez dira onartuko aurreko

urteetan aurkeztutako argazkiak. Partaide bakoitzak, bestalde, sari bakarra irabaz dezake atal bakoitzean. Oñati saria bere atalean saririk irabazi ez duen oñatiar argazkilari baten argaz- kirik onenarendako izango da.

### Adituen epaimahaia

Aloña Mendirekin harremanik ez duten hiru argazkilari espe- rientziadunek osatuko dute epaimahaia. Lehenengo auke- raketan atal bakoitzeko 20 ar- gazki aukeratuko dituzte eta horiek izango dira inprimatuko diren argazkiak. Azken aukera- keta inprimatutako argazkiekin egingo da. Irabazleen berri aza- roaren 15ean jakinaraziko zaie irabazleei eta herritarren au- rreko aurkezpena azaroaren 17an egingo da. Azaroaren 20tik abenduaren 3ra bitartean zabal- duko da erakusketa.

## 'Tertulixan' taldeek gidari berriak izango dituzte

Tolosako Yurre Ugarte (Tolosa, 1965) idazle eta zinemagileak gidatuko du ikasturte honetan Udal Liburutegiko euskarazko *Tertulixan* irakurle kluba. Gaz- telerazko taldea dinamizatuko duena, berriz, Ivan Repila (Bil- bo, 1978) idazle eta editore bil- botarra izango da. Orain arte moduan, hilean behin elkartuko dira aurrez elkarrekin adostu

duten liburua komentatzeko. Azaroan hasiko dira saioak eta parte hartu gura duenak libu- rutegian eman dezake izena.

Bi gidariek, bestetik, parte hartuko dute urriaren 24an eta 25ean egingo diren literatur to- paketetan. Yurre Ugarte eta Danele Sarriugarte irakurle gisa duten esperientziak arituko dira; Ivan Repila idazlea, bestetik, Colectivo Monstreko-rekin egon- go da mahai-inguruan. Litera- turaz eta antzerkiaz egingo dute berba, zinema aretoan.

## Ageriko Margo Lehiaketako lanak ikusgai, kultur etxean

Urriaren 22ra arte ikusgai dau- de kultura etxeko erakusketa gelan aurtengo Ageriko Margo Lehiaketako lanak. 18:00etatik 20:00etara egongo da horiek ikusteko aukera, egunero. Do- mekan egin zen XV. Ageriko Margo Lehiaketa eta aurten 23 parte-hartzaile izan ditu: 19 hel- duen mailan eta 4 umeenean. Luis Laskurainek, Leire Fer-

nandezek, Mirari Sagartzazuk eta Maira Jimenezk osatu dute aurten epaimahaia, eta, beraien erabakiz, helduen mailan Jokin Telleriak eroan du lehenengo saria. Bigarren saria Fernando Uretak eskuratu du eta hiruga- rrena, Alipio Ruanok. Oñatiar onenaren saria Ana Delgado- rentzat izan da. Umeen mailan, Lur Gesalaga izan da irabazlea, Idoia Martinez bigarrena eta Naiara Leza hirugarrena. Parte- hartzaileen maila ona nabar- mendu du epaimahaia.



# "Arrasate-Oñati probak erreleboa behar du"

**ATLETISMOA** Zapatu arratsaldean egingo dute Arrasate-Oñati lasterketaren 34. edizioa, eta Antxintxiketan taldeak antolatuko duen azkena izango da: "Lasterketak bizirik jarraitu dezan errelebo bila gabilta", adierazi du Asier Osinagak

**Xabier Urzelai OÑATI**

"Pena handiz, baina hauxe da Antxintxiketan taldetik antolatuko dugun azkenengo Arrasate-Oñati lasterketa", adierazi zuen Asier Osinagak martitzenean egindako prentsaurrekoan. Oñatiarrek desagertzeko bidean zegoen lasterketa hartu zuten 2009. urtean, urte askoan Laixan eta AED euskara elkarrekin elkarlanean antolatu eta gero. Atletismo zale talde bat izanda, Oñatiko atletismo taldekoek bultzada ona eman zioten Arrasate eta Oñati batzen dituen lasterketari, eta hainbat berrikuntza egin zituzten, besteak beste, patinatzaileei ere lasterketa egiteko aukera emanaz.

Urte hauetan Arrasate Atletiko Taldekoen laguntza izan dute lasterketa antolatzerako orduan baina gauzak diren moduan, nekatu egin dira: "Jende asko behar da, irteera eta helmuga herri ezberdinetan izateak zaildu egiten du lana, eta patinatzaileei lekua egiten diegunez, errepidea moztu behar izateak buruhaustea sortzen ditu baimen eta bestelakoei dagokienez. Hala, taldean konturatu gara jendea nekatuta dagoela, eta errelebo bila hasi gara dagoeneko. Antxintxiketan taldetik, berriz, San Silbestrean eta Kor-



Antxintxiketaneko ordezkariak udal ordezkariekin eta babesleekin. GOIENA

## MINUTU BATEKO ISILUNEA GORDEKO DUTE PETREÑASEN ETA MURGUZURREN OMENEZ

pusetako lasterketan jarriko dugu aurrerantzean indarra".

**Minutu bateko isilunearekin** Zapatuko lasterketak ez du no-bedade handirik izango, dagoeneko 60 lagun baino gehiagok

eman du izena (*Herrikrosa.eus*, 12 euro) eta antolatzaileek gogorazi dute proba egunean ezingo dela izenik eman.

Lasterketa 17:00etan hasiko dute –patinatzaileek– eta bost minutu geroago irtengo dira korrikalariak: "Minutu bateko isilunearekin hasiko dugu lasterketa, eta lore eskaintza egingo dugu; izan ere, gogoan izan gura ditugu aurten joan zaizkigun, eta urte askoan lasterketan gure ondoan egon diren Jose Ramon Petreñas epailea eta Jon Murguzur korrikalari oñatiarra".

## 34 edizio Arrasate eta Oñati lotzen

Arrasate-Oñati (1982), San Silvestre (1992), Torreauzo (1998) eta Corpusetakoa (2003) bata bestearen atzetik sortutako lau lasterketa dira, eta erakusten dute Oñatin zelako zaletasuna egon den atletismoarekiko. Zapatuko proba lagun talde batek antolatu zuen lehenengoz, eta 1992an Laixanek hartu zuen lekukoa. 34 edizio izan dira bi herri lotzen.



Arrasate-Oñatiarekin batera, Zubillaga-Oñati ere egin izan dute urteetan. P. RUIZ



Orobengoatarrak, lagunekin batera, Los Arcosen. I. OROBENGOA.

## 'Purito' CER-era eta Orobengoa anaiak bigarren Los Arcosen

**AUTOMOBILISMOA** Xabier Fernandez 'Purito' Espainiako erresistentzia proban lehiatuko da asteburuan

**X.U. ARRASATE**

Arrasateko Igor Orobengoa, Iker Orobengoa eta Xabier Fernandez *Purito* pilotuak albiste dira egunotan; orobengoatarrak, egin dutenagatik; eta *Purito*, asteburuan egingo duenagatik.

Izan ere, urriaren 1ean egin zuten Los Arcosko zirkuituan Nafarroako Opena, eta Orobengoa anaiak bigarren sailkatu ziren Seat Ibiza autoarekin parte hartutako bi lasterketetan. Gustura bueltatu ziren zirkuitutik, podiumera igotzeko hainbat zailtasun mekanikori egin behar izan ziotelako aurre eta

potentzia handiko autoen artean ondo moldatu zirelako.

**'Purito' asteburuan CER-era**

Xabier Fernandezek, berriz, asteburuan du urteko erronka handienetako bat, Arrasatekoa Espainiako Erresistentzia Txapelketan izango delako. Zapatuan ordubeteko lasterketari egin beharko dio aurre, eta, dena ondo bidean, lan txukuna egin dezakeela uste du arrasatearrak. Domekako bi orduko lasterketan, berriz, erronka biderkatu egingo da, eta hor zailagoa izango da aurrekoekin borrokatzea.

## ARETO FUTBOLA UDA Aretxabaletak Kukuyaga hartuko du

Maila Nazionalean txukun hasi dira Beistegiren mutilak, hiru partidu jokatu ostean sailkapenaren erdian daude-eta, lau puntu batuta. Joan den astean berdindu egin zuten (4-4) Durangoren kantxan, eta asteburuan Kukuyaga taldearen bisita izango dute Ibarrañ –ordutegia zehazteke–.

Euskadiko Txapelketan, berriz, Eskoriatzak etxean jokatuko du asteburuan Batzarreren kontra –ordutegi zehazteke– eta Mondratek, berriz, atsedena izango du. Eskoriatzarrek orain arte jokatutako partidu bakarra irabazi egin dute, eta Mondratek jokatutako biak galdu egin ditu, azkena Scaliburren kontra (4-8).

## MENDI LASTERKETA Eltxo Trail proba irabazi du Iban Letamendik

Joan den zapatuan egin zuten, Oreindainen, Eltxo Trail izeneko mendi lasterketa, eta, azken boladan izan dituen lesioak baztertuta, Iban Letamendi oñatiarra jaso zituen besoak helmugan –21 kilometroko lasterketa izan zen–.

Letamendik 1.31.54an egin zuen lasterketa, eta 33 segundo atera zizkion helmugan Ibon San Migeli (1.32.27). Gizonezkoen podiuma, berriz, Jon Alberdik (1.34.13) osatu zuen; hain zuzen, domekan Osintxuko lasterketa irabazi zuen gizonak –kronika osoa *Goiena.eus* atarian–. Emakumezkoetan, berriz, Osintxuko lasterketa bigarren urtez irabazi du Maddi Mujikak.



# "Espedizioak inspirazio iturri dira niretako"

**ION BERASATEGI** IDAZLEA ETA MENDIZALEA

Mendizaletasuna eta literatura uztartuz, 'Everest. Porque está ahí' eleberria idatzi berri du Ion Berastegi bergararrak. Jada literatur sari bat du irabazita

**Iker Oñate** BERGARA

Askotariko alorrek barnebildu ditzake literaturak; bada, oraingoan, mendizaletasuna egin du bere. Bide horretan, *Everest. Porque está ahí* eleberria idatzi berri du Ion Berastegi bergararrak; lanak Everestera eginitako bi espedizioen uztartzea du erdigunean. Jada erdietsia du lehen aitortza: *Desnivel* aldizkariaren 2017ko Literatur Saria. **Desnivel aldizkariaren aburuz, zurea da lehiaketara aurkeztu diren eleberrien artean onena. Espero zenuen halako aitortzarik?**

Kontraesana eman dezake, baina, ez espero arren, esperantza txiki bat banuela esan dezaket. Bestela, eleberria ez legoke lehiaketako lanen artean. Finean, maila handiko jendea aurkezten da aipaturikoan; eta 113 lan zeuden orotara. Dena den, nireak bestelako ukitua duela esan daiteke. Lehiaketari gagozkolarik, hori ona litzateke niretako.

**Zein da eleberriak duen "bestelako ukitu" hori?**

Oso presente dago umorea. Idazten dudanean, berezkoa dut istorioetan umorea txertatzea; eta berdina gertatu da eleberri honetan. Batez ere, gaur egungo espedizioak dihardudanean aurki daitezke barrea eragin dezaketenen pasarteak. Bada, helburua lortua dudala esan dezaket: eleberriarekin barre egin duela esan du epaimahaiko kide Juanjo San Sebastianek. Hori ohorea da niretzat.

**'Everest. Porque está ahí' bataiatu duzu liburua...**

Hala da. Izenburua ez da ausaz aukeraturikoa. Zehatz esanda, izenburua bera espedizio britainiarreko protagonistetako batek –George Herbert Leigh Mallory– adierazitakoa litzateke, kazetari batek egitasmoaren zergatiaz galdetuz zionean. Simplea izan arren, esangura handiko adierazpena da Malloryk eginitakoa.



Ion Berastegi, Everesti buruzko eleberriaren idazlea. XABI URZELAI

## "UMOREA PRESENTE DAGO EVERESTI BURUZKO ELEBERRIAN; BESTELAKO UKITUA EMATEN DIO HORREK"

**Eta, zer irakur daiteke eleberrian?**

Bi espedizio uztartzen ditu kontakizunak. Lehenengoan, britainiarrek duela 93 urte eginitako espedizioa dut inspirazio iturri; bigarrenean, bestalde, gaur egungo espedizio alpino bat legoke oinarrian. Horien bien artean urte askoko aldea dagoen arren, eleberrian gurutzatu egiten dira une batean. Beraz, biak lotzea lortu dudala esan dezaket.

**Duela 93 urteko espedizioak ezagutu behar izan dituzu, orduan.**

Ezagutzen ez nuen zerbait da; beraz, eleberriaren aurre-lanak oinarritzko izan dut dokumentazio lana. Gaia jorratzen duen libururen bat edo beste irakurri beharra izan dut; eta, horrez gainera, oso lagungarri izan zait Internetek eskaintzen duen informazioa. Halako baliabiderik gabe, ezingo nuen eleberria idatzi.

**Horrez gain, mendiaren bueltako zaletasunak ere lagunduko zizun eleberria idazterakoan, ezta?**

Bai. Urtero egiten dut espedizioen bat. Hala, bisitatuak ditut liburuan ageri diren toki gehienak; besteak beste, hor daude Tibeteko Nyalam herria eta Everesteko Rongbuk kanpaleku nagusia. Bada, Himalaiara eta bestelako tokietara egindako bidaia horiek inspirazio iturri dira niretzat. Oso lagungarri zaizkit eginiko irteerak.

**Zer izan da zailena eleberria idazterakoan?**

Istorio guztietan moduan, mami askoko momentuez gain, horren aberatsak ez diren pasarteak daude. Niretzat, gaitzagoa izan da azken horiek idaztea. Alegia, elkarrizketak erraz idazten ditut; baina denbora luzeagoa ematen dut gainerakoan.

**Eskuragarri izango da lana?**

Bai. Liburua argitaratzeko aukera eskaini dit saria irabazteak. Hori da, niretzat, betegarriena. Bada, azaroen argitaratuko da liburua, Gabon aldean eskuragarri egon dadin. Besteak beste, mendiaren bueltan diharduten dendetan eta kioskoetan erosi ahal izango da

## Aste amaiera gogorra datorkio Arizmendi Leintz taldeari

Bihartik hasita, bi partidu jokatuko dituzte Arizmendi Leintz futbol taldeko neskek. Etxean dute lehena

**I.O. DEBAGOIENA**

Aste honetan bi partidu jokatuko dituzte Arizmendi Leintzeko neskek. Bihar, eguena, dute lehena, Mariño taldearen aurka; 12:00etan dute hitzordua, Moja-tegi futbol zelaian. Bada, garrantzitsua izango da aste amaiera ondo hastea. "Saillkapeneko lehen hiru postuetan dauden taldeak ez bezala, gainerakoon artean puntu gutxiko aldea dago. Beraz, jardunaldi batek asko alda dezake saillkapena", azaldu du Andoni Ezkurrak, taldeko entrenatzaileak.

Esan beharrik ez, bestetik, aste amaiera ondo hasteak hurrengo partiduan izango lukeen eragina. "Partidu bat irabazteak konfiantza ematen dizu; eta horrek eragina izaten du hurrengo norgehiagokan. Beraz, lehena irabazita, indar handiagoz jokatu dugu bigarrena. Are handiagoa, azken partidua galdu ostean", aitortu du. Esan du, dena den, partidu "zaila" izango dutela biharkoa, "txapelketako gainerakoak bezala".

Bestalde, zapatuan –hilak 14– dute hurrengo partidu, 16:00etan hasita, Hernaniko Zubipe futbol zelaian. Gauzak horrela, ezin

uka aste amaierak izango duela islarik saillkapenean. Gaur-gaurkoz, hamahirugarren postuan –hamasei talde daude– dira Arizmendi Leintzekoak, lau punturekin. Hori bai, garaipen bakarrera dute seigarren saillkatua.

**Ibarreko taldeak, etxean**

Euren aldetik, Erregional Preferente mailan diharduten ibarreko talde gehienek etxean jardungo dute asteburuan. Azpimarratu beharkekoa da, horien artean, Aretxabaletaren eta Antzuolaren arteko derbia. Bestetik, Beasainen aurka jokatu du Aloña Mendik; Zestoaren kontra Bergarak; eta, azkenik, Soraluze izango du aurkari Mondrak.

Erregional Ohorezko Mailako taldeek kanpoan jokatu dute asteburuan. Zarautzen jardungo du Aretxabaletak; Mutrikun Mondragonek; eta Oiartzunen Bergarak. Beraz, asteko jaiegunek ez dute eraginik izan aipaturiko taldeen hitzorduetan.

Edizioa ixtean, zehazteke zizutzen Erregional Preferente eta Erregional Ohorezko mailetak hitzorduak.

## Kanpoan jokatu dute Fagor Industrialek eta Ford Mugarrik

Orain arteko bolada onari segida ematen saiatuko dira ibarreko bi taldeak; saillkapeneko goiko postuetan dira

**I.O. DEBAGOIENA**

Asteburuko atzean utzita, aurrera begira jarriak dira ibarreko Euskadiko senior mailako bi taldeak. Bada, Bilboko Jesuiten kiroldegian jokatu dute Fagor Industrialeko mutilek, Unibersidad de Deusto-Loyola taldearen kontra. Zapatuan dute hitzordua, 19:30ean. Bide horretan, orain artekoari segida ematen saiatuko dira oñatiarrak; orain artean, jokaturiko bi partiduak dituzte irabazita; azkena, Limpieresol Corazonistas talde gasteiztarren kontra: 22-19.

Arrasatearrek, berriz, domekan dute partidu, Bidasoaren aurka, 10:00etan hasita. Ford Mugarrik ere hasiera ona eman dio denboraldiari, saillkapeneko lehen postuan dira. Gaur-gaurkoz, bi garaipen eta berdinketa bakarra dute erdietsita. Azken hori, aurreko astean, Ilcapo Hondarribia taldearen aurka; partidu amaieran 25-25 adierazten zuen markagailuak.

Bestalde, Gipuzkoako Bigarren Lurraldeko Txapelketari dago-kionez, Munttarpe taldearen bisita jasoko dute bergarrek.





Joan den astean aurkeztu zuten Idazle Eskolako ikasturtea eta Karmele Igartua beka. ARETXABALETAKO UDALA

## Karmele Igartua beka, aurten, film laburrentzat

Bergarako idazle eskolak eta Aretxabaletako Udalak idazle aretxabaletarraren izena daraman aurtengo sorkuntza beka aurkeztu dute. Oraingoan, ikus-entzunezko lanak bultzatuko dituzte, eta interesatuek azaroaren 15era arte aurkez ditzakete gidioiak

**Maite Txintxurreta** DEBAGOIENA

Bergarako Idazle Eskolan aurki ekingo diote 2017-2018 ikasturte berriari; hamabosgarrenari, hain zuzen ere. Ikasturte berria aurkezteaz batera, Karmele Igartua sorkuntza beka ere aurkeztu dute Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Bergarako Idazle Eskolak urtero eskaintzen du beka hori, eta iazko edizioaz geroztik Aretxabaletako Udalarekin batera eskaintzen du.

Bergarako Idazle Eskolak hasieratik izan du sorkuntza beka. Lehendabiziko irabazleetako bat Karmele Igartua Bengoa aretxabaletarra izan zen. 2005ean matrikulatu zen Idazle Eskolan, eta gerora irakasle lanetan ere

aritu zen bertan. 2010. urtean hil zen Igartua, eta 2011n bere izena hartu zuen beka.

Literaturaren barneko genero desberdinak saritzen ditu urtero Karmele Igartua beka. Bada, aurten, film laburren gidioen sorkuntza bultzatuko dute, eta horretarako bi arrazoi nagusi daude, Tere Irastortzak, Idazle Eskolako zuzendariak, azaldu duenez: "Batetik, askotan ematen du literatura genero jakin batzuk bakarrik direla: poesia, ipuinak... Orduan, pentsatu genuen horren ohikoak ez diren generoak ere lantzea, eta iruditzen zaigu gidoigintza gure kulturaren parte oso garrantzitsua dela. Bestalde, gaur egun zine-

man, dokumentaletan eta ikus-entzunezkoen munduan badabil jende berria, gero eta gehiago, eta horiek animatze aldera".

Joan den urtean eskola antzerkiari zuzenduta egon zen beka, eta antzezlan irabazlea Aretxabaletan jokatuko dute aurten. Hortaz, irabazleari "bultzada" emateko ahalegina egingo dutela aurreratu du Irastortzak, eta laguntasunak jasotzeko aukera izan ditzakeela, Udalaren asmoa ere hori sustatzea baita.

**Oinarri nagusiak**

16 urtetik gorako edozeinek har dezake parte lehiaketan. Baldintzetako bat gidioiak euskaraz idatzita egotea da, eta parte

### Bergarako idazle eskola martxan

Bergarako Idazle eskolan edozein gaietan euskaraz idazteko gaitasuna bermatzea dute helburu, eta idazketa literarioa zein profesionala lantzen dute. Euskara ohikoa ez den alorretan erabilgarri egiteko baliabideak eskaintzen dituzte, aldi berean, hizkuntzen ukipenaren ondorioak ezagutzen eta gainditzen laguntzeko. Graduondokoa bi ikasturtetan egiten da (300 eskola ordutan). Matrikula epea zabalik dago urriaren 16ra arte ikasle berrientzat, *ieskola*. [asmoz.org/izenematea](http://asmoz.org/izenematea) webgunean.

hartzaile bakoitzak lan bakarria aurkez dezake. Gaia librea da. Lanak aurkezteko epea azaroaren 15era arte izango da zabalik. Aretxabaletako udaletxean aurkeztu behar dira, bertara joanda edo postaz bidalita. *Idazten.com* webgunean kontsulta daitzeko oinarriak zehaztasun osoz.

**Epaimahaia**

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du, eta bertako kideez eta literatura munduko pertsonenez osatuta egongo da. 2017ko abenduaren 30a baino lehen jakinaraziko dute zein den hartutako erabakia. Hala, irabazleak 2.500 euroko saria jasoko du.

### Bertso eta antzerki ikuskizun erradikalak

Ane Labakak eta Beatriz Egizabalek *Erradikalak gara* emanaldia egingo dute hilaren 20an

**Maite Txintxurreta** DEBAGOIENA

Ane Labaka bertsolaria da eta Beatriz Egizabal, berriz, antzezlea eta ipuin kontalaria. Lasarte Oriakoak dira biak, eta, indarrak batuta eta diziplinak uztartuta, *Erradikalak gara* ikuskizuna sortu dute. Bada, datorren astean, urriaren 20an, egubakoitza, Arrasatera ekarriko dute. 19:00etan izango da, Kulturateko areto nagusian.

"*Erradikalak zarete*, esaten digute. Eta *nahi eta behar baino gutxiago*, pentsatzen dugu. Bi emakume elkartu gara eta maletak kontraesanez beteta dakartzagu, bertso eta bakarriketa formatuan. Erraietatik ariko gara, umorez, erroetara iritsi nahian. *Erradikalak gara*, esango dizuegu. Eta *nahi eta behar baino gutxiago*, pentsatuko duzue". Hala aurkezten dute ikuskizuna Labakak eta Egizabalek.

Feminismoaren ikuspuntutik hainbat gai lantzen dituzte *Erradikalak gara* ikuskizunean, horietako asko euren bizipenetatik abiatuta. Euskaltzaletasuna, aniztasuna, sexua eta indarkeria dira lantzen dituzten gaietako batzuk. Ordubete pasatxoko emanaldia izango da.

## ZERRAJERA

INDUSTRIA IZAERADUN AZKEN ERRALDOIA

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJE BEREZIA  
URRIAREN 18AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN

goiena  
ZU HEMEN ZAUDE





# Txapelketa Nagusiaz gain, bestelakoak ere bai

Bertsozaleasuna sustatu eta dituen onurak aintzat hartuta askotariko ekimenak antolatzen dituzte Bertsozale Elkartek eta Lanku Kultur zerbitzuak, erakundeekin eta elkarteekin elkarlanean; horien artean daude 'Bertsotruk' eta 'Adin adin' egitasmoak

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Baigorri abiatu zuten irailaren 23an eta abenduaren 17an izango da, laugarren aldiz, Barakaldoko BECn, finala. Horren aurretik, sei final-laurden eta zazpi finalurreko –bi itzulitan banatuta– egingo dituzte. Oraingoan ez dago Debagoieneko bertsolariarik, ezta eskualdean saiorik ere; epaile dabil, baina, Mikel Fernandez de Arroiabe aretxabaletarra.

42 bertsolari hartzen dute parte; horien artean, eskarmendunak eta gazteagoak edo esperientzia gutxiagokoak daude nahastuta. Bost saio izan dira dagoeneko, aurreko asteburuan, Zallako Mimetiz pilotalekuan zapatuan eta Zumaiako Aitzuri pilotalekuan domekan. Zapatu-koan, Miren Amurizak lortu zuen finalurreko txartela eta Nerea Ibartzabalek irabazi zuen domekako final-laurdena. Aste-buru honetan saio bakarra izango da, zapatuan jokatu da azkeneko final-laurdena Tolosako Beotibar pilotalekuan, 17:00etan.

## 'Bertsotruk', eskolen artean

Txapelketa Nagusian dauden guztiak datoz bertso eskoletatik. Ondo entrenatuta daude, asko dira urtean zehar egiten dituzten saioak eta bestelako ekitaldiak; horietako bat da bertso eskolen arteko desafioak egitea helburu duen *Bertsotruk* egitasmoa.

Irailaren bukaeran Seguran egin zuten Bertso Eskola Eguenean aurkeztu zuten aurten hirugarrenez egingo duten ekimena. "21 taldek eman dute izena eta horiekin zortzi multzo egin dira. Multzo horietako bertso eskoletako bakoitzak bere taldeko bertso eskola hartuko du etxean eta elkarrekin zehaztuko dute saioaren hitzordua eta formatua", dio Bertsozale elkarteak.



lax Aretxabaletan egin zuten *Bertsotruk* saio bat. GOIENA

## ESKOLEN ARTEAN 'BERTSOTRUK' ETA HAINBAT ZAHARREN EGOITZATAN 'ADIN ADIN' EGITASMOA

Helduen bertso eskolen arteko harremanak sustatzea da udaberrira bitartean jokatu diren saioen asmoa. Debagoieneko hiru taldek hartuko dute parte aurten, hain justu, Oñati, Debagoiena eta Aramaio taldeek.

## Zaharren egoitzetan ere bai

Bertsoaren bidez adineko pertsonen gaitasuna sustatzea, egoitzetan bizi diren adinekoen bizi kalitatea hobetuz eta gaitasun psiko-emozionalak landuz, hori da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lanku Kultur zerbitzuak *Adin adin*-en helburua.

Hamalau zaharren egoitzetan egingo dituzte azaroa bukaera bitartean saioak. Debagoienean bi egingo dituzte: urriaren 26an, Bergarako Mizpirualde egoitzan eta azaroaren 9an Arrasateko Iturbide egoitzan.

## Txapelketaren inguruan, eguenetan

*Hemen Debagoiena* saioan, Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioak komentatzen dituzte Txomin Madinak eta kolaboratzaile batek. "Debagoieneko bertso eskolakoak, adituak eta zaleak gonbidatzen ditugu. Hainbat pasarte erakusten ditugu bertso esanguratsuek entzuteko. Orain arte bi kapitulu egin ditugu: Julen Iriondo Goienako lankide eta bertsozalea eta Xabi Igoa Aramaio bertsolaria izan ditut lagun", dio aurkezleak.

Finalera bitartean horrela egingo dute, eguenero; baina, bihar jaieguna izanik, ez da saiorik izango eta urriaren 19an izango da hurrengoa. Egun berean eskainiko den *Kulturriketak* saioan ere bertsolari izango da protagonista; izan ere, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita jarriko dira aulkietan.

## Goiena Klubaren

Goiena Klubeko urriko sariak!



Irakurgailua

Parte hartzeko sariaren izena: Irakurgailua



Ken Zazpiren oparia

Parte hartzeko sariaren izena: KenZazpi



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



## PARTE HARTZEKO:


E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA 'Sariaren Izena' [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatikoki

## Irabazi bi lagunendako otordua

ZELAI ZABAL JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2017 (urritik aurrera): 20 euro. Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arrasate.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Arrasate pasealekuan. Unibertsitatetik gertu. Lau logela, bi komun eta ganbara. Balkoi handiarekin eta dena kanpoaldera begira. Oso eguzkitsua. 618 79 36 45

**Arrasate.** Garagartzua auzoan, Atxabalpe ondoan, ikuspegi politak eta guztiz berritutako 70 metroko etxebizitza dago salgai. Sukaldea eta egongela handiak gain, bi logela, bi komun eta trastelekua ditu. Prezio ona. 678 62 31 52

## 103. ERRENTAN EMAN

**Eskoriatza.** 55 metro koadroko etxebizitza errentan ematen da Inbaxuruetan. Logela bakarra, baina egongela handia. Igogailu eta berogailuarekin. 350 euroren truke. 688 66 71 56 edo 943 08 25 29

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. 688 89 14 55

**Bergara.** Bi edo hiru logela eta igogailua daukan etxebizitza behar dut errentan. 697 86 48 91

**Bergara.** Logela bateko etxe bila nabil Bergaran. 400-450 euro ordain dezaket hilean. Interesatuok deitu: 618 92 40 53

**Debagoiena.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa gutxienez. Janzita ez badago ere, hartuko genuke. Hilean 300-500 euro artean ordainduko genuke. 632 77 35 38

**Musakola.** Hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. 672 91 18 46 edo 943 5331 75

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan erdigunean. Jende arduratsua izatea eskatuko da. 693 80 64 18

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona behar duqu. 629 80 47 82

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- **ORDAINTZEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBKO BAZKIDEENDAKO.**

**Etxea osatu.** Etxea partekatzen da Arrasaten; Unibertsitatetik oso gertu. 659 05 53 65

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergara.** Garaje moduan erabil daitekeen 79 metro koadroko lokala saldu edo errentan ematen da erdigunean, Burdiñatan. 607 34 90 43

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan San Lorentzon. 626 25 75 95

## 3. LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

## Aretxabaleta

Martxan dagoen ile-apaindegia ematen da errentan, erdigunean. Errostea aukerarekin. 645 00 90 91

## 4. LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska euskalduna etxeko lanak eta garbiketak egiteko gertu. 663 04 53 99

**Arrasate eta gauetan.** Neska gertu 17:00etatik aurrera edo gauetan nagusiak zaindu edota garbiketatu. Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. 636 11 23 40

